BEGITU
Arratia. Ubide. Zeberio
TOKIKOM

482
2026ko zemendiaren 17a
hamabostekaria
www.begitu.eus

Garcia Lorcaren obrea Igorren Poesia Hegalaria taldearen eskutik



Faxistek andaluziar unibersalena fusilau ebenetik 90 urte pasau diranean, Poesia Hegalaria taldeak Federico Garcia Lorca omenduteko *Romancero gitano* errezitaldia egingo dau hilaren 20an Lasarte Aretoan, musika eta jantzakaz buztartuta. **21. orrialdea**

Lehenagoko Arratia ezetuteko 300 irudi



Jon Urutxurtu zeanuriztarrak *Arratia zuri-beltzean: Arratiaren memoria grafikoa 300 iruditan* liburua argitaratu dau. XIX. mende akaberatik 1970. hamarkadara arteko 300 bat argazki batzean dira Arratiako herriak, janzkerak, kirol zein aisi jarduerak, politikea, gerrea eta orokorrean bizimodua zelangoa zan dokumentetan dabenak. **10., 11. eta 12. orrialdeak**

Zemendiaren 25ean faxismoaren kontra

Zemendiaren 25ean, 19:30ean, Lasarte plazatik abiatuko da Arratia mailako manifestazinoa Igorren, "Ez ginen atzera egiteko jaio, faxismoaren aurrean feminismoa!" lelopean. Horrezaz gain, herriz herri berbaldiak, antzerkiak eta tailerrak antolatu ditue. **13. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Espainiako Hauteskunde Orokorrak hilaren 29an

Etxebizitzearen auzia hauteskunde kanpainearen erdigunean egongo da, zemendiaren 11ko greba jentetsuaren ostean. Inkesta gehienek PPri eta Voxeri emoten deutsee garaipena Espainian. Soziometroak EH Bildu aurreikusten dau nagusi Euskal Herrian. **8. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Greba Orokor eraginkorrena


Etxebizitza eskubidearen aldeko eta espekulazinoaren kontrako zemendiaren 11ko greba arrakastatsua izan zala balorau dabe sindikatuek. Arratian, komertzio, zerbitzu eta hezkuntzan igarri zan gehien, industrian izan zan desorekatuagoa: "Kriston lanketea egin da aurretik eta erantzuna oso ona izan da". **5. orrialdea**

LEMOA

Bistibietako zabortegiko edukia handitzeko eskaerea

FCC Ambito enpreseak edukia handituteko eskaerea egin dau, Lemoako zabortegiaren zarrakerea 2027rako programauta dagoan arren. Eskaereak zelda barriaren edukierea 232.000 metro kubikotik 345.000ra igotea planteetan dau, haren azalerea handitu barik.

Azurreka alkarteak Arartekora jo dau, besteak beste aurreko handitzean legeztau aurretik egindako obrak ikertu dagizan. Lemoako Udalak argitu dau, eduki handitzea aurreko handitzearen birkalkulu bat dala. **6. orrialdea**



Literatura txokoa

EDURNE PASABAN

Gurea bezain mendizalea dan herri batek gura nahiz ez emon behar dauz horretan munduan erreferente diran izen handiak. Horreetako bat dogu Edurne Pasaban: munduko 14 zortzimilakoak igon ebazan lehenengo andrea.

Komiki honetan bere kirolibilbidea kontetan jaku. Zelan hasi zan, nor aurkitu eban bidean eta nogaz egin ebazan igokerak. Baita be izandako istripuak eta galdutako lagunak.

Hainbat andra mendizale jabilkoz inguruan (Pili Ganuza, Amaia Aranzabal, Miriam Garcia Pascual, Gerlinde Kaltenburuner...) baita gizonak be (Juanito Oiarzabal, Juan Vallejo, Mikel Zabalza...). Danak dira garrantzitsu eta danei emongo jakie lekua eta aitamena liburuan, baina beragaz batera protagonista nagusia edurra izango da; izan be, komikiaren ardatza izango da edurra, bere izenagaz eta bizitzeagaz lotura nabaria daukan neurrian.

Epilogo moduan amaieran datorren Edurne Pasabanen mendibilbidearen deskribapen kronologikoagaz osotuta datoz liburuaren sei kapituluak. Seirek daroez edurragaz zerikusia daukien kontzeptuak izenburu eta sarreratzat.

Ramon Olasagasti mendikazetariak sortu eban testua, euskerazkoa zein gaztelaniazkoa dagoz argitaratuta; marrazkiak César Llagunok eta kolore zein errotulazinoa Felipe H. Navarrok eta Pedro Villarejok.

Testuak kapitulu hasikerako prosa poetiko samarra, kontakizuneko berbeta periodistikoa eta bokadilloetako erregistro hurbil eta argia nahasten dauz.

Marrazkietan atentzinoa emoten dau linearen erabilereak: lodikera desbardinak gerizpen adierazpide, linea ugari baina marrazkiaren zeozelango minimalismoa galdu barik, errealismo handia arpegietan baina ez fotografikoa. Oso interesgarria.

Halaber, koloreak, biziak, planoak, ilustrazinoen itxurakoak, hainbat giro desbardinen erakusgarri (ospitala, mendi desbardinak, gaua, kontakizunak, herriko jaiak...) eta danetan gailentzen dana, edurraren kolorea. Zelan lortzean da kanpoan zuria besterik ikusten ez dogun lekuan komikian hainbeste tono, kolore eta modutan irudikatzea? Ba lortzean dabe, bai horixe. Zeozergaitik da edurra liburuko protagonistea Edurnegaz batera.

Maite Artabe Urkiri



Ramon Olasagasti Aiestaran

Ilustratzailea: Cesar Llaguno

Edurne Pasaban

Sua Edizioak, 2025

128 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zemendiaren 16tik 22ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Iruarrizaga (14-20). Amorebieta-Etxano.
Zemendiaren 23tik 29ra
Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez (21-27). Amorebieta-Etxano.
Zemendi. 30etik abenduaren 6ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano (28-4). Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17
Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00retatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00retatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00retan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoien eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoien eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Josu Otxoa (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Mikel Alonso (Arantzazu, Areatza eta Artea), Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egileeskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitekez *Creative Comons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

EKIN opilkotak
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Arantzazuko UDALA
Areatza
artea udala
Bedialo UDALA
Dimako UDALA
IGORRE
LEMOA
Ubideko UDALA
ZEANURI
zeberio udala lizkarraz

ZEURE BERBEA

Zertarako behar dau herriak udala?

Erantzuna argia da: herria egiteko.

Kontua da, zer ulertzen dogu dala herria?

Batzuentzako “hormigoia eta aterpeak” izan daiteke erantzuna, besteontzako personak gara, baina batez be komunidadea da. Eta zer da komunidadea alkar zaintzean dan bihotz-moltsoa baino, amets bera partekatzen daben eta mosu-truke alkarlanean dabizan persona taldea baino. Izate bat daukien arimen sarea.

Eta guk ulertuten dogu bolondres lanean gabizan herritarrok bihotz horren taupadak garala. Euskerea, aisialdia eta kulturea sustatzen doguzala herria maite dogulako eta udalaren lana da gure lana erraztea. Herritik sortutakoa ezin daiteke oker egon.

Udalak bidelagun izan behar dau. Baliabide ekonomiko, administratibo eta juridikoak emon. Udalaren ikuspegiak aberastu egin daike herritik sortutakoa eta su txikiak hauspotuz su handiagoak egin. Baina egin ezin daikeana da bidean trabak ipini. Herria oker dagoalakoan hau arteztuteko ardatzak ipini. Arlo baten lanean dagoanari zelan zuzenduko deutso horretan inoz lanean ibili ez danak? Udalak baliabideak emoten ditu, ez konpetentziak eta jakintzak.

Hortaz, idatzi hau sinatzen dogunok hurrengoa eskatzen deutsegu herritarren ordezkariak diranei: lagun gaizuez Igorre euskaldun, baloreetan oinarritutakoa eta kohesionatuago bat eregiten, eta horretarako beharrezkoak ikusten doguzan komunikazino eta alkarlanerako prestutasuna izaten. Egin daigun danon artean Igorre bizigarriago bat.

ZAZTAPARRAK ASTI TALDEA, IGORREKO IZ GURASO ELKARTEA, IGITE ARRATIAKO BASERRITAR AGROEKOLOGIKOEN ELKARTEA, KIÑU GAZTETXEA, ARANTZARTE DANTZA TALDEA, IGORREKO KORRIKA BATZORDEA ETA AUZOAK ASTINDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

ALKARREGAZ

Txumuluxueta Kultur Elkartea

Dimako Txumuluxueta Kultur eta Kirol Elkartea euskal kulturea bultzatu eta herrian kultur mobimentua indartu eta sendotzeko helburuagaz 1995. urtean sortu zan.

Bere ibilbidean joan-etorri asko izan ditu alkarteak. Hasikerako indar barritzailearen ostean izan ditu urte lasaiagoak eta 2014tik aurrera kementsu dabil kultur esparrua jorratzen.

Gaur, gure ekintza bideak hiru ardatz nagusi ditu: mitologia, memoria historikoa eta herri ondarea zein sasoian sasoiko euskal tradizinoari lotutako jarduna.

Jentilak Diman euskal mitologiari buruzko ezagutzea handitu eta gaia sozializetako ekimena dogu. Ekimen hau mitologiari buruzko ikuskizun desbardinakaz osotzen da: ipuin mitologikoen antzezpenak, mendi ibilbide mitologikoak Baltzolako Jentilzubi eta koben inguruan, herri girotze ekintzak, umeengan mitologia ezetuarazoteko ekintzak...

Bakearen lore gara ekimenaren eskutik, oinarrizko testigantzetatik abiatuta, herriko memoriaren alderdi soziala lantzean dogu. Udalagaz eta hainbat alkartegaz alkarlanean, memoria ibilbidea herriari eskaintzea da gure helburu nagusia.

Atzenik, ondarea ekimenaren bidez, sasoian sasoiko zein era zabalago baten herri ondareari lotutako ekintzak landu izan dira. Esaterako, auzo-eskolen nondik norakoak, sanjuanak, Gau Baltza, Olentzero, Euskerearen Eguna eta abar.

ERETXIA

Arratiako paziente baten bizipenak: zaintzean dabenek be zaintzea behar dabenean

Arratiako herritar bat naz. Ez dodaz lerro honeek osasun-profesional gisa idazten, ezta kolektibo jakin baten izenean be. Paziente gisa idazten dot, lehen mailako osasun-arretearen erabiltzaile gisa, eta urtez urte gure gizartearen oinarri izan beharko leukeen zerbitzu baten gainbeherea kezka handiz ikusten dauan persona gisa.

Hemen azaltzen dodanak ez dauz osasun-zentroetan egunero lanean dabizan profesionalak seinalau gura. Aitzitik. Ikusi dodana da lehen lerroan dagozanek ahalegin ikaragarria egiten dabela gero eta gehiago eskatzen deutsien eta gero eta babes gitxiago eskaintzen deutsien sistema bateri eusteko. Nire kezkea ez dago profesionalengan, baizik eta antolaketan, kudeaketan eta erabakiak hartzeako moduan.

Asko harritzen nauan lehen gaietako bat administrazino-triajea dalakoaren funtzionamentua da. Teorian, protokolo bat dago pazienteen eskaerak modu egokian bideratzeko eta profesional egokienari esleitzeko. Baina erabiltzaile gisa, gatxa da ulertzea zelan gainbegiratzen dan benetan protokolo hori.

Protokolo bat badago, auditoretza zorrotz eta periodikoak be egon beharko litzatekez. Edozein erakunde moderno eta arduratsutan, prozesuak neurtu, aztertu eta hobetu egiten dira. Kontrol barik ez dago hobekuntzarik. Ebaluazino barik ez dago kalidadebermerik.

Paziente askok dogun sensazinoa da lehen kontaktu horretan hartzean diran ebatziak ez dirala behar bezala aztertzen, eta ez dagoala gerora egiaztatzen dauanik pazienteak profesional egokiarengana bideratu diran ala ez. Horren ondorioz, medikuaren esku egon beharko litzatekezan hainbat konsulta erizaintzara bideratzen direla dirudi, daborduko gainezka dagoan kolektibo bateri lan-karga handiagoa erantsiaz.

Galdera deseroso baina beharrezkoa da: nork gainbegiratzen ditu lehen harreran hartutako erabaki horreek? Nork ebaluatzen dau gero deribazino horreek zuzen egin diran ala ez? Zein adierazle erabiltzen ditu Osakidetzak prozesu horren kalidadea neurtzeako? Herritar gisa, askotan emoten dau galdera horreek ez dabela erantzunik.

ARRATIAKO PAZIENTE BAT

Horreri beste arazo larri bat gehitzean jako: erizaintzako jarduerei esleitzen jakiezan denporen eta errealidadearen arteko arrakala.

Protokoloek eta agendek minutu jakin batzuk esleitzen deutsiez zeregin askori. Baina osasunak ez dau kronometro baten arabera funtzionetan. Paziente bakotxa desbardina da. Zauri batek konplikazino gehiago izan daike. Adineko batek azalpen gehiago behar izan daike. Egoera zaurgarrian dagoan persona batek laguntzea, orientazinoa edo entzuna izatea besterik ez dau behar izaten.

Konsulta baten benetako beharrak kontuan hartu barik diseinetan diranean, emaitzea aurreikusgarria da: etenbako atzerapenak, pilatutako estresa eta profesionalak ezinezko egoera batera behartzea. Pazienteari behar dauan denporea eskaintzen badeutsie, agenda guztia atzeratzen da. Agenda zorrotz bete gura badabe, arretea ezin da merezi dauan sakontasunagaz emon.

Eta horren ondorioak ez ditu erizainak bakarrik pairatzen. Pazienteak be sufriduten dauz. Itxaronaldi luzeagoak, tensino-giroa, konsultea gainezka ikustea eta, atzen baten, arreta-sistemeagazko gero eta frustrazino handiagoa.

Bestalde, Arratia eskualdeko erizaintzearen egoerak hausnarketa sakona eskatzen dau. Osasun-zentroetan gero eta nabarmenagoa da saturazinoaren sensazinoa. Eguneroko jarduera behatzea besterik ez dago lanpresinoa maila oso kezkagarrietara ailegau dala ikusteko.

Are gehiago, badirudi lan-kargea ez dagoala modu orekatuan banatuta profesional guztien artean. Desoreka horreek agendakudeaketearen, adierazleen eta antolaketa egoki baten bidez aztertu eta zuzendu ahal izango litzatekez. Baina erabiltzaile askoren ikuspegitik, badirudi Osakidetzak ez dauala arazo hori benetako lehentasuntzat hartu.

Egoera honen alderdirik mingarrienetako bat da erizainak bihurtu dirala sistemearen arpegi ikusgai. Paziente batek itxaron behar dauanean, erizainaren aurrean kejetan da. Agendek huts egiten dabenean, erizainak emoten ditu azalpenak. Antolakuntza-arazoak dagozanean, erizainak jasotzen ditu frustrazinoa eta haserrea. Hau da, erizainak bere lana egiteaz gainera, beste batzuek eragindako arazoen ondorioak be bere gain hartu behar ditu.

Inork gitxitan berba egiten dau horrek guztiak profesional horreen osasun mentalean daukan eraginaz. Baina ezin da ukatu etenbako presinoak, lan-karga gero eta handiagoak, denpora faltak eta pazienteen frustrazinoa egunero kudeatu behar izateak ondorio larriak izan daikezanik.

Nekea. Frustrazinoa. Ezintasuna. Errekuntza profesionala. Ansiedadea. Motibazino-galerea.

Horreek guztiak ez dira abstrakzinoak. Benetako arriskuak dira. Eta erakunde batek bere profesionalak egoera horretara heltzean ixten dauzanean, erakunde hori bere erantzukizunaren zati bat alde batera ixten dabil.

Baina Arratiako herri txikietan badago are larriagoa dan beste errealidade bat: bakardadea.

Erizain askok bakarrik egiten dabe lan. Bakarrik artatzen ditue konsultan osasun mentaleko arazoak izan ahal dabezan pazienteak. Bakarrik egiten deutse aurre egoera oldarkorrei edo tensino handiko momentuei. Bakarrik joaten dira etxeetara bisitak egitera, askotan inolako segurtasun-neurri eraginkor barik eta berehalako laguntzarik jaso ezinik. Egoera hori onartezina da.

Ezin da ulertu XXI. mendeko osasun-sistema publiko batek bere profesionalak holan abandonetea. Ezin da onartu erizain batek bere segurtasun fisikoa edo psikologikoa arriskuan ikustea, baliabide faltagaitik edo planifikazino eskasagaitik. Ezin da normalizau bakarrik egotea egoera kritikoetan. Osakidetzak ezin dau beste aldera begiratu.

Lehen mailako arretea osasun-sistemearen ate nagusia da, eta erizaintzea da ate hori eusten dauan zutabeetako bat. Zutabe hori etenbarik kargetan bada, zaintza barik ixten bada eta babes barik manteniduten bada, atzenean sistema osoa ahulduko da.

Horregaitik, idatzi hau ez da erizainen kontrako kritikea. Kontrakoa da. Erizaintzearen aldeko aldarria da. Dei bat da administrazino-triajea benetan auditau daiten. Dei bat da medikuaren eskumeneko kasuak medikuaren esku gera daitezan. Dei bat da agenda-denporak errealidadera egokitu daitezan. Dei bat da lan-kargak modu objektiboan aztertu eta orekatu daitezan. Eta, batez be, dei bat da erizainen segurtasun fisikoa eta osasun mentala benetako lehentasun bihur daitezan.

Izan be, osasun-sistema batek zaintzen dabenak zaintzeari ixten deutsanean, gizarte osoari huts egiten hasten jako.

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Biak Mari

Biak ziran Mariaren adbokazinoak, bata Luis eta bestea Pedro. Anbotoko Marik euki deiala bata bere gloria paganoan, bestea Arteako Andra Marik. Ez dakit zergaitik afektatu naben hainbeste bizitzak pasautako bi heriotz-zorrek, erremediorik ez badauka asuntoak. Antzeko tertzioan joan jakuzalako biak, igual? Akaso izango da nire haurtzarora, eta gero gaztarora, eroan nabelako, suabe-suabe, gomutek. Batek daki. Zarraparrak pilatzen dira bihotzean eta gero piloak nar egiten dau halako baten. Nar pozan-pozagaz gainera: biak ezetu izanaren poz tristeagaz. Tire, gu be bagoazela gorantza.

Akordatzen naz Albaro zelan etorten zan bere giltzarateagaz Arratiako bertso eskolara, eta sailean-sailean jatortaz oinak burura: aburu, seguru, inguru, gu zure aiduru. Binke, aiduru. Holantxe geldi-tu gara, gelditu be.

Eta baleiteke Luis Mari Amundarainen hutsunea gordeagoa izatea, uxoagoa, baina ez da horratino txikiagoa.

Esan, mesedez, gauza partikularregiak banabiltzuez kontetan gaurkoan... baina hain diferenteak baziran biak, zergatik nahastu jataz oin negar-anpuluakaz?

*Zantzoa*ko epokea zan, eta diseinuagaz lagundu euskun, pazientzia guztiagaz. Gu epe bako batzuk. Letra tipo guztiak gogoan dekodaz: Calibri, Comic Sans, Verdana, Arial Black.

Eta baltz paretan baziran gauzak —gazte bat kontrol baten Dimarako bidean—, berak:

—Tenpleu.

Eta Anjelinesen limoi-arbolearen ondotik pasetan nintzan gero lyorretik bueltan, eta beste mundu baten sartzean: eskuak atzekaldean kurutzatuta bajoian plazarantza, eta nik “bueno”, eta berak, ahoagaz baino begiakaz berbaz:

—Bueno, Igor.

Eta lasaitasun hori, iluntzeetakoa. Oin atzera jatort.

Bata Klementina berbera eta bestea historiako maisua, ezetu ez bazenduezan esango deutsuet: bizitzaren hariek bat egiten daben lekukoak ziran, Arratia ibaiak bustitzen eban haranekoak.

ZERTZEAN



SAIOA LARREA



BEGI TXINDORRA

Zemendiaren 14an Euskadiko Futbol Federakundearen Selekzinoak urteroko partidua jokatu eban San Mamesen, Venezuelako Selekzinoaren kontra. Beste urte batez, bai zelaian bai harmailetan ozen entzun zan ofizialtasunaren aldarrikapena. Nori ardura jako ba emaitzea? Emon dira ofizialtasunaren lehen pausuak. Partidu hasikeran, pelota eta sokatira selekzinoak omendu ebezan, nazinoarteko lehen txapelketa ofizialak jokatu dabezanak.

Euskadiko Futbol Federakundeak be jakinarazo dau, ofizialtasuna lortzeako prozesua berbiztu eta barriro ipini dauala martxan. Legalki, autonomia-erkidegoetako federazinoek zuzenean parte hartu ahal dabe nazinoartean, erkidegoaren historian eta gizartean errotuta dagozan kirol modalidadeetan. Euskal futbolak daukan ibilbide historiko eta ezarpen soziala justifikauta egingo da FIFA eta UEFAn sartzeako eskaerea. Aurretik be, Espainiako Futbol Federazioak prozesu hau oztopatu dau; beraz, beste behin izango da erabakigarria kaleko aldarria. Goazen ba ofizialtasunaren bila!









ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Atzen urteetako Greba Orokor eraginkorrena izan da zemendiaren 11koa

Etxeak biziteko eta ez negozioa egiteko dirala aldarrikatuaz, lantokiak hutsitu eta kaleak bete ebezan milaka langilek.





Asier Abrisketa

"Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez!" lelopean deitu eben zemendiaren 11ko Greba Orokorra Etxebizitza Sindikatuen Sareak, Etxebizitza Sindikatu Sozialistak, ELAk, LABek, Steilasek, ESK-k, Hiruk eta Etxaldek. Deialdiaren ondorioz, eta milaka eta milaka langilerentzako etxebizitzearen auzia jasanezina dala frogatuaz, atzen urteetako Greba Orokor eraginkor eta jentetsuena izan zan. Sindikatuen arabera, Bilbon 70.000 persona urten ziran kalera eta Hego Euskal Herrian, 200.000 inguru; deigarria izan zan parte-hartzaile gazteen kopuru nabaria. Bilbon, manifestazino-buruak Jesusen Bihotzean hogei minutu eroazenerako, amaierakoak hasikerako puntuan egoazan oindino, Arriagako zubian.

Gurean be, eragin handia izan eban grebeak. Goizean goizetik, 05:00etan, 30 bat lagunek Lemoatik Igorreraino martxea egin eben errepidetik eta auto ilara luzeak eratu ziran, antolatzaileen esanetan hiru kilometro ingurukoak. Martxoko Greba Orokorrean supermerkadu, taberna eta denda txiki asko zabaldu ebezan, gero piketeak paseterakoan zarratu ziranak. Baina oingoan, goizean goizetik mantenidu ziran komertzioen gehiengoa zein zerbitzuak (kiroldegiak, kultur etxeak...) guztiz zarratuta egun osoan zehar. Hezkuntzan be, grebearen jarraipena ia erabatekoa izan zan bai institutu bai eskoletan.

Industria arloan, desorekatuagoa izan zan parte-hartzea. Cementos Lemona guztiz gelditu zan, Ormazabaleko aparkalekuan langile falta nabaria igarten zan baina produkzinoa ez zan eten eta BATZen lanean ibili ziran. Tailer txikerragoetan barriz, asko egon ziran zarratuta baina ikusten ziran ateak zarratuta egonda be, langileen kotxeak bertan egoazala. Halanda be, Arratiako LABen ordezkaritzatik BEGITUn adierazo dabe, greba aurreko egunetan "kriston lanketea" egin zala eta orokorrean grebak "jarraipen altua" izan ebala gurean.

Manifestazinoa Igorren

Arrastiz, grebalariek manifestazinoa egin eben Igorreko kaleetatik eta bertan be igarri zan, euriak arrastia hartu baeban be, aurreko grebetan baino sano jente gehiago egoala. Manifestazinoa amaituta, Kultur Etxeko plazea jentez-lepo komunikadua irakurri eban Arratiako Greba Komiteak. Bertan salatu eben, "egoerea jasanezina" dala: "Langile klasea pobretuten dabil, enpresari eta espekulatzaileek irabaziak handituten dabezan bitartean; etxebizitzea eskubidea izan behar da, osasungintzea eta hezkuntzea diran moduan".

Putre-funtsak, bankuak eta errentistak seinalau ebezan oztopo moduan, "danak dabiz gure bizitzearen kontura irabaziak egiten" eta honen arduradun, klase politikoa dala azpimarrau eben: "PSOEk gidatutako gobernuak ez dau ezer egin egiturazko aldaketak emoteko eta EAJk, negoziazinoetan errentismoaren interesak defendiduten ditu". Bestetik, andrek eta sexu-genero disidenteek, gazteek, migratzaileek eta persona arrazializaduek etxebizitza sarbiderako daukiezan oztopoak be azpimarratu ebezan.



begitu 482
2026ko zemendiaren 17a

LEMOA

Bistibietako zabortegiak handitzea eskatu dau, ixtea 2027rako programauta egon arren

Azurreka Ekologista Elkarteak Arartekora jo dau eskainitako dokumentazinoa eta honegaz lotutako informazino faltea zein legeztau aurretik egindako obrak ikertu dagizan. Udalak adierazo dau, eduki handitze hau aurreko handitzearen birkalkulu bat dala.



Asier Abrisketa

FCC Ambito enpreseak kudeatuten dau Bistibietako zabortegi industriala eta zelda barriaren edukia, azalerea handitu barik, 232.000 metro kubikotik 345.000 metro kubikora handituteko eskaera formala egin dau. Honek datorren urterako programauta dagoan zabortegiaren zarratzearen gaineko dudak eragin ditu. Ixtea Eusko Jaurlaritzeak programau eban 2022an, 2030erako hondakinen kudeaketea berrantolatzeko plana egin zanean. Izan be, EAEn sortzean dan zabor bolumena gitxitxea aurreikusten zan, birziklapen eta ekonomia zirkularraren ondorioz eta beraz, zabortegiak ixten joatea; Bistibietakoa tartean.

Bistibietako zabortegiak hondakin industrialak hartzean ditu, berbarako Prestigeren hondamendian hondartzak garbituteko erabili ziran materialak dagoz bertan. Handitzeko eskaerea dala-ta, Azurreka alkartea martxan ipini da eta Arartekora jo dau, EAEko herritarren defendatzailera, hainbat kontu ikertu dagizan. Besteak beste, trazabilidade nahiko ez daben Prestigeren hondakinak, legeztau aurretik egin diran obrak, isiltasun administratiboa eta kontrol integrau faltea. Azurrekak Arartekoan aurkeztutako kejan dinoanez, "salatzen dana ez da erantzun faltea, baizik eta instalazino barria baimentzeko, informetako, ikuskatzeko eta kontroletako sistema publikoaren balizko porrota" eta ustezko ez egite horreen erantzule diran administrazinoak ikertuteko: Eusko Jaurlaritzako ingurumen eskudun saila, URA eta Lemoako Udala.

2024ko handitze irregularra

Ikertutea eskatu dan kontuetako bat 2024ko handitzea da, Eusko Jaurlaritzeak 232.000 metro kubikoko zelda barria baimendu ebanean. Azurrekak Arartekora bialdu dauan kejak dinoanez, enpresearen proiektuak argi ixten dau obrak 2019ko garagarriletik 2020ko abendura egin zirala baina, FCC enpreseak ez ebala legalizazino hidraulikoa 2023ko urrietara arte eskatu eta Konfederazio Hidrografikoak 2024ko abuztuan emon ebala baimena. Aurretik, 2021ean EH Bilduren Lemoako Udal Gobernuak irregulartasunak atzemon eta lanak geldiarazo ebazan. Baina EAJ alkatetzara ailegau zanean, 2023an barriro emon jakon enpreseari Udalaren baimena, Azurrekako Unai Ortuzarrek BEGITUn azaldu dauanez, "ezelango arrazoi edo azalpen barik".

"Ze lizentziagaz, autorizazino hidraulikoagaz, proiektugaz eta kontrol administratibogaz egin ziran lanak; nork kontrolau eban obrea eta proiektua bat etozala eta zer dala-ta baimendu zan lehenengo obrea egin eta gero legalizetea" da ikertu behar dana, dinoe Azurrekatik. "Ez dinogu dana ilegala izan danik", dinoe ekologistek, baina "handituten jarraitu aurretik jakin behar da ze hondakin dagoan azpian, non dagoan, zelan konfinau ebezan eta zein egoeratan dagoan gaur egun".

Lemoako Udalaren adierazpena

Lemoako Udalak, prensa ohar baten bitartez argitu gura izan dau, FCC Ambitoren asmoa zeldetako baten edukia, ez azalerea, handitutea dala. Beste alde batetik, Udalak 2021ean atzera bota eban handitze eskaerea "udalerriko urigintza-araudiagaz bateraezina" zalako izan zala dino eta gerora, enpreseak beste eskaera alternatibo bat egin ebala, baina oingoan "urigintza-araudi bateragarriagaz". Hau izan zan gerora onartu zana. Baina Udaletik azaldu dabenez, FCCk ez eban aurkeztu orduko obrakaz irabaziko zan eduki ahalmen osoaren kalkulu barriztua eta "oin detektau da akatsa".

Beraz, oingo eskaerea birkalkulatze bat baino ez ei da. Lemoako Udalak urri bigarrenaren 29an bialdu eban bere urigintza eskumenetan oinarritutako informea Eusko Jaurlaritzako ingurumen organura. Bertan aitatuten danez, "aurretik ezarritakoagaz alderatuta ez da ingurumen-baldintzetan aldaketarik planteetan", baina "edukia handitzeak hondakin tona gehiago sartzea baimendu eta zabortegiaren ustiaketa denporea luzatzea eragin daike".

IGORRE

Igitiek biharko elikadura sistemea eregiteko eskola komunidadea deitu dau



Durangaldeko Berton Bertokoa ekimenaren hamaiketako osasuntsuen esperientzia ezetuteko saioa hilaren 19an egingo da.

Asier Abrisketa

Aprilean hasi ziran Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartearen inguruko ekoizleak *Zer jango dogu bihar? Gaurtik eragin!* dinamikeagaz. Ordutik, ekoizleei bideratutako saio bat eta konsumitzaileentzako beste bat egin ditue. Hirugarren saioa zemendiaren 19an egingo da, 18:30ean Igorreko Kultur Etxean, eta eskola komunidadea dago deituta. Etorkizuneko elikadura sistemea eregiteko behar beharrezkoa da-ta: batetik, eskola publikoetan inguruko ekoizleen produktuak sartzeako aukerea egon daitekealako eta bestetik, umeen osasunean eragiteko.

Teoria bakarrik ez eta esperientzia praktikoak be entzuteko, Igitiek Durangaldeko Berton Bertokoa guraso-plataformea konbidau dau Igorrera. Berton Bertokoa plataformearen eraginez, Durangaldeko eskola publikoetan hamaiketako osasuntsuak antolatuten dira eta holango ekimen bat, Arratiara ekarteko asmoa dauka Igitiek. Eskola komunidadeagaz batera hausnartu eta ideak trukatzeko deitu dau Igitiek batzarra. Saioan umeentzako zaintza zerbitzua egongo da, bai eta berbaldia gaztelerara itzultzeko zerbitzua Telegram aplikazino eta aurikularrak daroazenentzako.



ARRATIA

V. Mikroipuin Txapelketea antolatu dau Berbalagun taldeak

50 eta 100 berba bitarteko ipuinak abenduaren 31ra arte bialdu daitekez *arratia_berbalagun@aek.eus* helbide elektronikora.

Asier Abrisketa

Arratiako Berbalagun taldeak, AEKren ekimenez euskaldun zahar eta barriak batu eta euskerea praktikan ipintea helburu dauan egitasmoa, hainbat jarduera ireki antolatuten ditu urtean zehar eta ointsu emon da kursoko lehenengo ekintzen barri. Urtero lez, Mikroipuin Txapelketea egongo da jokoan eta gainera, tailerrak be antolatu dira.

Mikroipuin Txapelketea bosgarren urtez antolatu da eta parte hartu gura dabenek, 50 eta 100 berba bitarteko ipuintxoa idatzi eta *arratia_berbalagun@aek.eus* helbidera bialdu leikie. Abenduaren 31ra arte parte hartu daiteke eta epaimahaia, Berbalagun taldeko eta Kubulu Euskaltegiko ordezkari banak osotuko dabe.



2024ko Mikroipuin Txapelketako sari banaketea.

Tailer irekiak

Euskerea doban eta jarduera desbardinen bitartez praktiketako, tailer bi be antolatu dira. Lehenengoan argizarizko kandelak egingo ditue, hilaren 19an, 18:30etik aurrera euskaltegian. Bigarrena, azukre bako postreak egiteko tailerra izango da, abenduaren 15ean, 18:00etatik aurrera San Juaneko txokoan. Bietarako emon behar da izena *arratia_berbalagun@aek.eus* helbidera idatzita.

AREATZA

Zemendiaren 23an hasiko da Gabonetako Areatzako Bonodenda kanpainea

Asier Abrisketa

Areatzako Udalaren ekimenez, herriko komertzioetan erostera bultzatuteko Bonodenda kanpainea egingo da zemendiaren 23tik Gabon ostera arte, urtailak 9 hain zuzen be. Bonu bakotxagaitik 20 euro ordaindu beharko dira baina honeekaz erosketak egiterakoan, 25 euroko balioa izango dabe. Bonuok Gauzak dendan erosi ahal izango dira, NAN bakotxeko hiru gehienez. 600 bonu ipiniko dira zirkulazinoan.

Bonuak metatu daitekez baina erositakoaren balioa 25 euro baino gitxiagokoa bada, ez da dirurik bueltauko. Komertzio honeek batu dira Bonodenda kanpainara: Aliprox Areatza, Andikoa harategia, Gauzak dendea, Arantza Zamalloa botikea, Estankoa, Denda Barri, + Ke... Pan eta Amaia ule-apaindegia.



ZEBERIO

Udazken Kulturaleko atzen jarduerak

Zemendia bizi-bizi dabil Zeberion, udagoieneko lehenengo hotzei arpegi onagaz erantzuteko helburuagaz.

Asier Abrisketa

Udalak, Gure Indarra alkarteagaz eta Austarri kultur eta mendi taldeakaz batera antolatu dau egitarau berezia. Hilaren 6tik, barikua, hileko atzen domekara arte, hilak 29, hamabi jarduera desbardin egiten dabiz herrian: kontzertuak, jantzak, mendi urtekerea, babajana, proiekzinoa, berbaldiak, antzerkiak, bertsoak eta amaituteko, merkadua. Lehenengo hamabostaldikoak pasauta, honeek dira datozan aste bietan egingo diran ekintzak.

Zemendiak 18, eguaztena
18:00etan, Los *derechos de las personas mayores* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 20, barikua
19:00etan, bertso-poteoa. Plazan.

Zemendiak 25, eguaztena
13:00etan, Andranganako Indarkeriaren Kontrako Eguneko alkarretaratzea. Plazan.
13:00etan, Z25 antzerkia. Eskolan.
18:00etan, *Sexualidad y afectividad en la vejez* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 27, barikua
17:00etan, *Frida* antzezlana. Plazako Ermita Zaharrean.
19:00etan, *Paredes que inspiran* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 28, zapatua
18:00etan, Vulcanizadas musika taldearen kontzertua. Ermitabarrin.

Zemendiak 29, domekea
10:00etan, Udazkeneko Azokea. Plazan.



EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA
NERABEZAROKO ERRONKAK GAINDITZEKO LAGUNTZEA
LAGUNTZEA NOZ ESKATU:
· EMOZINOAK KUDEATZEKO ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
· PRESINO AKADEMIKOA
· LAGUNAKAZ ARAZOAK
· FAMILIA ARAZOAK
· JARRERA EDO JOKABIDE ARRISKUTSUAK
Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean
Lehendakari Agirre 4, Igorre · 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com ekineanpsikologiazentrua

Alokairuan eskaintzen dogu
GAU - LORA
Igorre
Interesa izatekotan idatzi hurrengo helbidera
igorrekomail@igorreko.com

IGORRE

Okupazino egunaren hamahirugarren urteurrena ospatuko dau Kiñuk

Zemendiaren 21ean, zapatua, izango da Igorreko tabernak musikaz beteko dauzan XIII. Rokupa jaialdia.



Asier Abrisketa

Hamahiru urte beteten dira lehenengo gazteak diskoteka eta grabazino estudio izan zaneko Igorreko Garbe auzoko eraikinera sartu, hau okupau eta Kiñu Gaztetxea martxan ipini ebenetik. Urtero lez, okupazinoaren urteurrena ospatuteko Rokupa jaialdia antolatu dabe. Zemendiaren 21ean izango da hamahirugarren edizinoa txalaparta, bazkari eta kontzertu artean.

Eguerdiz, 12:00etan zabalduko dauz ateak Kiñuk, txalaparta tailerra egin eta txalaparta taldea aurkeztuko da. Gero, 15:00etan egingo da bazkaria; txartelak Axular eta Kukuman dagoz salgai hilaren 19ra arte. Bazkalostea amaituta, 19:00etan izango da lehen kontzertua Olabarriko Haizea tabernan; Tati bakarlari arrigorriagarrak eskainiko dau kontzertu akustikoa. Herrigunera mobiduta, 20:30ean ON rock talde donostiarrak Kukuman eskainiko dau kontzertua eta jarraian, 22:00etan, Grapa punk talde bergararraren musikea entzun ahal izango da Axular Herriko Tabernan. Jaiak bertan segiduko dau, DJ Radiopatiogaz.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Zemendiaren 29an egingo dira aurreratutako Hauteskunde Orokorrak



Asier Abrisketa

Pedro Sanchez Espainiako presidenteak hiru urte eroazan eskoiaren eskaerei ezetza emon eta 2027ra arte gobernauko ebala esaten. Atzenean, urri bigarrenaren 5ean iragarri eban Hauteskunde Orokorrak aurreratu egingo zirala, etxebizitzeagaz lotutako dekretu biek kale egin ostean eta besteak beste, eskoiaren presino, ustelkeria kasu, tren istripu, etxebizitzarako arazo, Ceuta eta nazinoarteko panorama gogorrak berezitu dauan legegintzaldi baten ostean.

Hauteskunde kanpaina beroa izatea espero da eta etxebizitzearen auzia zentroan egongo da, batez be ezkerreko alderdientzako. Izan be, hauteskundeak hilaren 13an hasi zan kanpaina aurreko egunetako Greba Orokor jentetsuak eta hurrengo egunean bozkatu ziran etxebizitza dekretuek pisu handia izango dabe. Diputazino Iraunkorrean (kongresua deseginda dago eta 69 kidek bakarrik emon leikie botoa) bozkatu ziran dekretu biak. Etxegabetzeen aurkako dekretua estu-estu (35-34) onartu zan baina alokairuen kontratuak automatikoki barriztuteko dekretua ez, PP, Vox, JxC eta EAJ kontra agertu ziran-ta.

Inkestak

Estadu mailan inkesta gehienek PP eta Vox-ek ordezkatutako eskoiari emoten deutsee garaipena eta hilaren 12an kaleratutako CISen inkestea da eskoi espainolak gehiengo osoa eskuratuko ez daula dinoan bakarrenetarikoa. EAEn be, Soziometroak aldaketa nabariak aurreikusten ditu. Bizkaia eta Gipuzkoan EH Bildu litzateke irabazlea eta Araban, PSE. Proiekzinoak dino, EAEn holan banatuko leitekezala diputaduak: EH Bilduk zazpi (+2), PSEk bost (=), EAJk lau (-1) eta PPk bi (=). Emaitza honeekaz, EAJk ezingo leuke talde propioa osotu kongresuan.

ZEANURI

Asterrian sanandresak ospatuko ditue hileko atzen astegoienean



Asier Abrisketa

Zeanuriko Asterria auzoan San Andres jaiak ospatuko dira zemendiaren 27tik 29ra. Txokoan hasiko ditue ospakizunak bariku arrastian, 19:00etan txupinazoa botata eta herriko txistularien lehen doinuakaz. Jarraian, ume zein helduentzako Igel Txapelketea egingo da eta 21:00etan, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsolariek girotutako afaria egingo da. Izena hilaren 22ra arte emon daiteke 636 378 870 telefonoan.

Zapatuan barriz, desafio artean emongo dabe arrastia asterriaztarrek, 18:00etatik aurrera. Mikel eta Beñat Etxebarria anaiek ardi-mozte desafioa egingo dabe; jarraian Telmo Intxaurbe-Adei Olibares eta Katalin Intxaurbe-Hodei Bilbao herriko umeek trontza desafioa egingo dabe eta amaituteko, Harriti taldearen eta auzotarren arteko desafioa egingo da, harriari tiraka. Jaiagaz segiduteko, Jainaga eta Narbaizagaz lehenengo eta DJ Rednalegaz gero jantzan egin aurretik, odoloste-jana egingo da 20:30ean. Jaia domekan amaituko da, 19:00etan ermitan mezea entzunda, eta gero, txokolate beroagaz eta txistularien musika artean, errifen zozketea eginda.

ARRATIA


Hondakin handiak batzeako zerbitzua aldi baterako etenda dago

Bilketarako kamioiak arazo teknikoak daukaz eta Arratiako Udalen Mankomunitateak aldi baterako eten dau zerbitzua.

Erredakzinoa

Etenaldiak irauten dauan bitartean, Mankomunidadeak ez dau bolumen handiko hondakinik ezta etxeko tresnarik be batuko. Herritarrei eskatu deutse altzariak, koltxoiak eta bestelako hondakin handiak kalean ez ixteko eta garbigunera eroateko.

Ez da zehaztu zenbat iraungo dauan etenaldiak. Zerbitzua barriro martxan ipinten danean emongo da horren barri. Mankomunidadeak eragozpenakaitik parkamena eskatu dau eta herritarren laguntzea eskertu dau.



ARRATIAKO ENPRESA MAHAIA sortzeako lehen pausuak martxan dira

ERROTA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

Errota Fundazioa

Errota Fundaziotik saio parte-hartzaileak antolatu doguz zemendiaren 16tik 19ra, Arratiako enpresen eretxiak eta ekarpenak jaso eta etorkizuneko Enpresa Mahaia alkarregaz definiduten hasteko.

Enpresa bakotxak bere errealidadea, beharrak eta erronka propioak izan arren, askotan beste enpresa batzukaz partekatzen dituan kezkak eta interesak be izaten ditu. Horreetako batzuri erantzuteko, enpresen arteko alkarlanak aukera barriak zabaldu daikez. Baina, zeintzuk dira gaur egun Arratiako enpresen behar eta kezka nagusiak? Ze gairen inguruan ikusten dabe alkarlanerako aukerea? Eta zelango lankidetza-gunea izango litzateke benetan erabilgarria eurentzako? Galdera horreei erantzuteko, ezinbestekoa iruditzen jaku enpresen ahotsa entzutea eta euren ikuspegitik abiatzea.

Testuinguru horretan, Errota Fundaziotik atzen hilebeteetan Euskal Herriko beste eskualde batzutan martxan dagozan enpresen arteko lankidetza esperientziak ezetuten eta aztertzen ibili gara. Esperientzia horreen bidez, alkarlanerako guneek enpresen arteko harremanak sendotzeko, behar partekatuak identifiketako eta proiektu bateratuak sustatzeko eskain daikiezan aukerak ezetu doguz.

Oin, Arratian be enpresen arteko alkarlanerako aukerak aztertzen hasteko unea ailegau dala uste dogu. Ha-ta guzti be, gure asmoa ez da beste eskualde batzutako ereduak zuzenean errepikatzea, ezta Errotatik aurrez definidutako egitura bat ezartzea be ez. **Arratiako enpresek eurek ebaztea gura dogu zelango egiturea behar daben, zertarako erabili gura daben eta zelan antolatu beharko litzatekean.**

Horretarako, Errota Fundaziotik Enpresa Mahaia definiduteko prozesua abiatu dogu, enpresen arteko alkarrizketea eta hausnarketea sustatuaz. Gure egitekoa prozesu hori bultzatzea eta erraztea izango da, eta Enpresa Mahaiaren norabidea enpresen interesek, beharrek eta ekarpenek markau beharko dabe, benetan erabilgarria eta iraunkorra izatea gura badogu.

Lau saio parte-hartzaile zemendian

Prozesu honen lehen urrats modura, lau saio parte-hartzaile antolatu doguz hileon. Topaketa honeetan, Arratiako enpresei berbea emon gura deutsegu, euren errealidadeak, interesak eta kezkak ezetuteko eta alkarlanerako aukeren inguruan hausnartzeko.

Saio honeen helburua ez da Enpresa Mahaiaren proposamen zarratu bat aurkeztea, enpresen arteko alkarrizketea sortzea eta etorkizuneko lan-esparruaren oinarriak alkarregaz definiduten hastea baino. Zer landu gura daben, zer espero daben eta zelan parte hartu gurako leukien ezetutea izango da abiapuntua.

Saioak zemendiak 16-19 bitartean egingo dira Bediako eskola zaharretan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, Igorreko Lasarte Aretoan eta Arteako Industrialdeko SPRI-ren ofizinetan.

Topaketa honeetan jasotako eretxiak eta ekarpenak abiapuntu izango dira Enpresa Mahaiaren proposamena lantzean jarraitzeko. Holan, enpresen benetako interes eta beharretatik abiatuta, etorkizunean landu daitekezan lankidetza-aukerak identifiketan hasi gura dogu.

Errota Fundaziotik Arratiako enpresa guztiak animau gura doguz saio honeetan parte hartzera. Enpresa txiki, ertain zein handien ikuspegiak ezetutea garrantzitsua izango da, baita jarduera-sektore desbardinetako errealidadeak jasotea be.

Arratiako Enpresa Mahaia enpresentzako eta enpresakaz eregi gura dogu. Horregaitik, lehen urrats honetan, euren ahotsa entzutea eta ekarpenak jasotea izango da gure lehentasuna.



ARRATIA

Arratiako hika Appa hi! aplikazinoan jasoko da

Bertoko hitanoa modu ludikoan ikasteko aplikazinoaren aurkezpena egingo da Igorren abenduaren 4an.



Asier Abrisketa

Euskal Herrian hika bizibarritu eta erabilerea sustatuteko Badihardugu alkartearen ekimenez jaio zan Appa hi! aplikazinoa. Euskera batuko hikagaz hasi ziran eta gitxika-gitxika dabiz herri eta eskualde desbardinetako hitanoa aplikazinoan sartzean. Hurrengo eguneratzeagaz, Arratiako hika batuko da zerrendara zemendiaren 19tik aurrera. ZirHika alkarteak ekimen hau aurkeztuko dau Igorreko Lasarte Aretoan abenduaren 4an, 18:30etik aurrera.

Aplikazinoa modu ludikoan, jolasen bitartez, hika ikasteko dago pentsauta eta App Store zein Google Play Storen deskargau daiteke. Banaka zein taldeka lehiaketak sortuta, jolasak azalpen, marrazki, bideo, galdera-sorta eta aditz taulakaz buztartuten ditu Appa hi!-k. Helburua, bost astetan hika barneratuta izatea da eta horretara dago bideratuta bost astez, egunez egun, 10-15 minututan egiteko joko-programea.

Hilaren 19tik aurrera

Arratiako hika hilaren 19an agertuko da aukera lez aplikazinoan. Izan be, egitasmoa egun horretan aurkeztuko da Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan, Bilboko Hurtado de Amezaga kaleko 6. zenbakian. Bizkaiko Foru Aldundiak finantzau dau ekimena eta bertan egongo da diputazinoko Euskara Zuzendari Nagusia dan Isaac Amezaga, Badihardugo kideakaz batera.



ARRATIA ZURI-BELTZEAN LIBURUA

Arratia zuri-beltzean, denpora zaharretako bidaia bat 300 iruditan

Arratia zuri-beltzean: Arratiaren memoria grafikoa 300 iruditan izenburua daroan liburua —Jon Urutxurtuk euskeraz eta gaztelaniaz idatzia— argitaratu dau ointsu Bizkaiko Foru Aldundiak. Izenburuak liburuaren oinarria diran 300 bat zuri-baltzezko argazkiei egiten deutsa erreferentzia: batez be XIX. mendearen amaieratik 1970eko hamarkadara arteko zuri-baltzezko argazkiak. Irudi adierazgarriak aurkezten dira, jagoken testuinguruan kokatzen dabezan testu laburrez lagunduta.

Erredakzinoa


Egilearen arabera, "lan honek denpora zaharretako bidaia eta memoria-ariketa izan gura dau. Aurkezten diran irudien bidez zera proposatzen jako irakurleari: Arratiako historiaren arlo adierazgarri batzuk ezetutea, gogoratzea, behatzea eta iraganeko analisia egitea eskualdean, arlo desbardinetan emon diran eraldaketa esanguratsuenez ohartzeko: janzkeran, lanean, ospakizunetan, hezkuntzan, sinismenetan, urigintzan, gizartean...".

Liburua osotzen daben 184 orrialdeen edukiak 10 kapitulutan banatuta dagoz, honako izenburu honeekaz: *Arratia ibaia*; *Garraio- eta komunikazio-azpiegiturak*; *Gorbeia, Baltzola eta bainuetxeak*; *Ekonomia*; *Gizartea*; *Politika*; *Hezkuntza eta kultura*; *Aisialdia eta kirolak*; *Gerra Zibila* eta *Epilogoa: Postrea, Areatza/Villaroko guardia zibilak*. Kapitulu horreetako bakotxak alderdi esanguratsu batzuk jorratzen ditu: esate baterako, gizarteari eskainitako kapituluan, janzkerea —"arratiar trajea"—, demografiaren ingurukoa, auzokidetasuna, Artea eta Areatzako apaiztegiak, baltseoaren edo jantza lotuaren debekua, Areatza/Villaroko Bolivar Asiloa... aitatzen dira, eta atal horreetako bakotxa irudiakaz ilustrauta dago.

Erakusten diran 300 irudietatik gehienak zuri-baltzezko argazkiak dira, XIX. mendearen amaieratik XX. mendeko 1970eko hamarkadara artekoak, baina beste era bateko dokumentuak be badagoz: Arratiako tranbiaren txartelak, publizidade-iragarkiak, aldizkari eta egunkarietako azalak, bailarako paisaiak eta eszenak islatu ebezan margolarien lanak... eta irudi horreek testuinguruan kokatzen dabezan testu laburrez lagunduta dagoz. Egileak dinoanez "irudien ondoan, elkarrizketen bidez, artxiboetan egindako konsulten bidez, hemerotekan egindako arakatzeen bidez... lortutako informazinoan oinarrituz, irudiak osotzen dabezan azalpenak emoten dira".

Irudiek historia, kulturea eta





norberaren nortasuna ulertzen laguntzen daben iraganerako leiho zuzen gisa jokatzen dabe. Horreetako batzuek parebako momentuak, arraroak eta harrigarriak islatzen ditue, berbarako: XIX. mende amaierako arratiar janzkereak, artisten paisaia margolanak, 1924an Gorbeiako kurutzera autoz egindako lehen igokerea, arratiar toreatzaileak, Soberano Arratia andrazkoen lehen futbol taldea, Felix Eruskin jabalina-jaurtitzaile iraultzailea, eskolak, zinemak...

Arratia bailarea, Bizkaia isolatu eta zaharkituaren paradigmea?

Sarritan Arratiako bailarea isolatuta eta txarto komunikauta egoan eskualdetzat eta Bizkaia sakonaren paradigmatzat hartu izan da. Baina hori ez da holan izan: Erdi Aroan, Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan kaltzada edo errege-bideak bailarea kurutzatuten eban: Ubide pasau ostean, Saldropotik —ez Barazarretik— Zeanurira zuzentzen zan, Areatza/Villarotik —1338an sortutako uribildua, merkataritza-bide hori indartzeko— jarraitzen eban, eta Artean, Ugao-Miraballeserantz —ez Igorrerantz— desbideratzen zan, handik Bilbora ailegetako.

XIX. mendearen erdialdean zabaldu zan Arratiako errepidea —"Arratiako Errege Bidea" izenekoa, gaur egungo N-240 errepidea—: Urgoititik (El Gallo) Barazar mendaterantza joian, bailarako udalerriak zeharkatuaz. Igorren, Dimatik etorren bideagaz bat egiten eban.

1882ko bagilaren 1ean, Bilbo eta Durango lotzean ebazan Ferrocarril Central de Vizcayaren zerbitzu publikoa zabaldu zan. Ondorioz, Bediak eta Lemoak garraiobide barri bat izan eben: trenbidea.

1902ko abenduaren 6an, Bilbotik Durangora eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren linea inaugurau zan —Arratiako tranbia izenez ezetuten dana—, Durango eta Arratiako bailarako herriak alkarren artean eta herri horreek Bilbo Handiagaz lotzean ebazana.

Tranbiak 1964. urtearen amaieran itxi eutsan zerbitzua emoteari. Data horretatik aurrera, N-240 errepidea izango da Arratiako bailarako garraio eta komunikazino azpiegitura nagusia.

XIX. mendearen amaierako hamarkadetan, imajinario kolektiboarentzako Arratia leku ezkutu eta misteriotsua zan, eta tradizionalistek euskal ohituren garbitasunaren erreserbatzat hartzean eben.

Unamunok bere *Recuerdos de niñez y mocedad* liburuan dino: "Nire garaian, eta uste dot oin be, Arratiak bilbotarrentzat, Bizkaiko jatorrizkoena eta jatorrena irudikatzen eban, kanpotik datorrenaren aurrean sendotasunez manteniduten dana, Bizkaiaren bihotza. Arratia legendea zan" (Unamuno, 1990: 110). "(...) Arratiarra! Arratiarra guretzako legendaz inguratutako izaki mistikoa zan" (Unamuno, 1990: 100).

Testuinguru horretan, artista askok Arratia bailarara jo eben behin eta barriz, euskal tradizinoen konserbazinoaren paradigmatzat eta euskal arkadiaren iruditzat hartzean baieben. Gainera, XIX. mendearen erdikaldean garraioetan emon ziran hobekuntzek —Arratiako errege-bidea zabaldu zan, gaur egungo N-240 errepidea— artista eta bidaiariak eskualde honetara etortea erraztu eben. Juan de Barroeta (1835-1906), Anselmo Guinea (1854-1906), Fernando de Amárica (1866-1956), Aurelio Arteta (1879-1940), Álvaro Alcalá-Galiano (1837-1936)... margolariak bailarako herrietara hurbildu ziran euren paleta, pintzel eta pigmentuakaz, mende aldaketan Arratiako paisaien eta bizitzearen hainbat alderdiren eszenak irudikatzeko.

Bailarak argazkilari edo argazkizaleen jakin-mina be erakarri eban, berbarako Eulalia Abaitua bilbotarrarena, Indalecio Ojanguren eibartarrarena, Gerardo López de Guereñurena, Enrique Guinea Maquibarrena, Tomás Alfaro arabarrena... Euren irudietako batzuk liburu honetan jasoten dira.

Bestalde, Arratiak argazkigintzearen aitzindari bat izan dau, Felipe Manterola, hain zuzen be, eta honek XX. mendearen hasikerako bailarako eta bereziki Zeanuriko bizitzea islatzen daben irudi ugari itxi ebazan.

Arratia zuri-beltzean liburuak Arratiako memoria kolektibora hurreratzea ahalbidetuko dauan lekukotasun bisuala izan gura dau. Iragana ezetuteak oraina ulertzen laguntzen dau eta etorkizuna argitzen dau.

> *Liburuak Arratiako memoria kolektibora hurreratzea ahalbidetuko dauan lekukotasun bisuala izan gura dau*

Non eskuratu

Liburua Areatzako + Ke... PAN, Arteako Herriko Bentan, Igorreko Estankoan eta Orrie paperdendan, Lemoako Amorrortu jatetxean eta Argazkilunen, Zeanuriko Loli-Leire dendan, Durangoko Azokako BFA-ren standean, Bilboko Foru Liburutegiko dendan eta *bizkaia.eus/argitalpenak* estekan lortu daiteke.



Arratiarra Areatzako kaleetan.



Zeanuriko geltokia. Argazkilaria: Salvador Ramon de Azpiazu.



Bizkaiko andrazkoen txapeldun izan zan Soberano-Arratia taldea.





ARRATIAKO ARGAZKILARIAK

***Arratia zuri-beltzean* liburuak bailarako udalerrietara hurreratu ziran argazkilari edo argazkilari zale ugariren argazkiak biltzean ditu, baina aitamen berezia merezidu dabe Arratiako argazkilariek: Felipe Manterola argazkilaritzearen aitzindariak eta Bereciartua anaiek, lehen argazkilari profesional arratiarrek. Horreekaz batera, Bilboko argazkilari ibiltari bat be aitatu behar da, oindino arratiar askoren memoria kolektiboan dagoana, eta 1950-70eko hamarkaden artean, Vespa baten gainean, bailarako udalerrietan barrena ebilena: Foto Mickey.**

Felipe Manterola, XX. mendearen hasikerako argazkilaria

Felipe Manterola Urigoitia (1885-1977) Zeanurin jaio zan eta bertan bizi izan zan beti. 1897an alargundu zan ama eta Felipe, hiru semeetatik zaharrena, mutil koxkor zala familiaren jaubetzakoa zan Estankoaz —zapateria, dendea eta tertulia gunea zana— arduratu zan. Baina argazkilari handia be izan zan, zaletasun hori bizibide moduan inoz hartu ez baeban be.

Dirudianez, lehenengo argazkiak 1904. urtean egin ebazan eta errebelaua be etxean eukan estudiotxoan egiten eban. Inguruko familiek eta erakundeek sarri joten eben berarengana argazkiak eta erreportajeak egiteko.

Edozelan be, bere kamarea ez eban erabili estudioko argazkiak egiteko bakarrik, eta hainbat argitalpenetan be erabili ziran bere irudiak: Donostiako *Novedades* aldizkarian; *Geografía General del País Vasco-Navarro* entziklopedian; 1925etik 1926ra Eulogio Gorostiaga apaizagaz lan egin eban *Eusko Folklore* urtekarirako *Establecimientos humanos y la casa rural* ikerketea argazkiz horniduteko; 1931n *Folclore y costumbres de España* liburuan Telesforo de Aranzadik nekazaritzeari eta euskal jantzei buruz idatzitako testuak ilustrau ebazan; Julio Caro Barojak *Los Vascos* liburuaren lehen edizinoan Manterolaren argazki pare bat erabili ebazan; 1978an, José Miguel Barandiaránek zuzendutako *Euskaldunak. La etnia Vasca* liburuan bere hainbat argazki bildu ziran...

Bestalde, postalen bildumak be egin ebazan; horreetako batzuk Alemanian emon ziran argitara, beste batzuk Frantzian eta Bilbon. Bizkaiko uriburuan argitaratutakoak Lux etxeak prestatu ebazan, eta postal gehienek euskeraz idatzitako testua eroien behekaldean.

Argazkilaritzearen munduaz gainera, zinemarena be ikutu eban, eta 1930. urte inguruan 16 milimetroko kamara batez baliatuta, Zeanuriko eguneroko bizitza eta jazoerei buruzko filmaketak egin ebazan.

Gerra Zibilak Felipe Manterolaren argazkilaritzako lan emonkorra eten egin eban. 1937ko abuztuaren 4an atxilotu egin eben eta 1940ko bagilaren 12an askatu eben. Etxera bueltau zanean, 55 urte eukazan eta bertan behera itxi eban 1904an hasitako afizinoa. Bakar-bakarrik noizean behin familiarteko erretraturen bat egiten jarraitu eban. Edozelan be, gerra osteko urteetan lehenagoko argazki batzuk akuarelaz margoztu ebazan.

Bereciartua anaiak: lehen argazkilari profesional arratiarrak

Felipe Manterola zeanuriztarra Arratiako argazkilaritzearen aitzindaria izan bazan, Bediako Bixente eta Iñaki Bereciartua anaiak lehenengo argazkilari profesionalak izan ziran.

Argazkilaritza zaletasuna Bixente anaia zaharrarengan biztu zan, Afrikan soldadiskea egindako lagun batek ekarri eutsan argazki-makineagaz bere lehenengo erretratuak egiten hasi zanean. Garai haretan Bixentek Ramón Mimentza kontratisteagaz egiten eban lan listero moduan, aldi berean ordu libreetan argazkizaletasuna garatzen eban arren.

Auzoko Zenarruzabeitia familiakoak Venezuelara emigretako izan ziranean egin eban lehendabiziko erreportaje serioa Bixentek, 1949ko zezeilean. Laster ipini eban laborategia bizi zan Bediako Estarta baserrian, eta bertan errebelautako lehenengo argazki-lana Bediako María Arteta eta Urkizuko (Igorre) Iñaki Zugadiren eztegukoa izan zan. Erreportaje horretan, Bixentek Bilboko Foto Espigaren laguntzea izan eban. Bien bitartean, Iñaki 13 urteko anaia gazteak Bixenteri laguntzen eutsan, eta apurka-apurka ofizioa ikasi eban.

Argazkilaritzatik ogia irabazi ahal zala ohartuaz, 1954an Fotografías Bereciartua estudioa zabaldu eban Zornotzan Bixentek. Argazkiak egiten alde batetik bestera joateko Lube 99 motorra erosi eban. Gerotxoago, hamazortzi urte bete ebazanean, Iñakik Osa markako motorra erosi eban.

Estudiorik izan ez arren, Bediako baserrian eukan laborategiaz baliatuta, bere kontura lan egiten hasi zan Iñaki, eta 1957an anaiarengandik independizau zan. 1975 urtearen inguruan, Igorreko Garbe auzoan egoan estudioa erosi eutsan Muñoz argazkilariari eta Foto Beri zabaldu eban, bertan jarduteko 1998ko urri lehenengoan erretiroa hartzeako ordua heldu jakon arte. Bixentek, ostera, hamabosten bat urte lehenago zarratu eban Zornotzan eukan Fotografías Bereciartua.

Foto Mickey

Foto Mickey argazkilari ibiltaria izan zan; ez zan arratiarra, baina XX. mendeko 1950-70 urteen artean Arratiako herrietara hurreratzen zan eta oindino be arratiar askoren memoria kolektiboan jarraitzen dau. Vespa motor batez baliatuaz, bailarako udalerrietan zehar ibiltzen zan era desbardinetako argazkiak eginaz: umeak, lagun-taldeak, bataioak, jaunartzeak, ezkontzak, nortasun-agirirako argazkiak... Erretratuak egin, bere estudioan errebelau eta entregau egiten ebazan. Bilbon eukan egoitzea edo estudioa, Particular de Abasolo kaleko 4. zenbakiko behekaldean (Uribarri kalearen akaberan). Telefonoa: 246971.



Felipe Manterolaren autoretratua. 1908. urtea.



Iñaki Bereciartua "Beri" eskoian kamarea eskegita daukala.



ZEMENDIAREN 25A

Faxismoaren kontrako aldarriagaz urtengo dira kalera feministak Z25ean

"Ez ginen atzera egiteko jaio, faxismoaren aurrean feminismoa!" lelopean egingo da manifestazinoa Igorren.

Asier Abrisketa

Zemendiaren 25a da Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna eta urtero lez, Arratiako Udalen Mankomunitateak, udalek eta Arratiako Mugimendu Feministearen inguruan batutako eragile feministek alkarlanean antolatu ditue manifestazinoa eta jarduera ugari. Arratia mailako manifestazino nagusia hilaren 25ean egingo da Igorren, Lasarte plazatik 19:30ean urtenda. Faxismoaren aurrean, feminismoaren inguruan antolatzeko deia zabalduko da "Ez ginen atzera egiteko jaio, faxismoaren aurrean feminismoa!" leloagaz.

Manifestazinoa izango da ekitaldi nagusia baina aurreko egunetan zein atzetik, jarduera ugari dagoz antolatuta: berbaldiak, zineforumak, erakusketak, adierazpen instituzionalak, antzerkiak, proiekzinoak, bakarrizketak, autodefensa tailerrak... Hemen batu doguz aldizkaria zarratu ordurako antolatuta egon diran jarduera guztiak, baina ziurrenik, gehiago be egongo dirala baieztau dabe mankomunidadetik.

Zemendiak 18, eguaztena
ZEANURI
18:00etan, *Menopausia ongizatez eta osasunez bizi* tailerra Joane Jimbert emaginagaz (izen-emotea *mazalaandrataldea@gmail.com*). Kultur Etxean.

Zemendiak 22, domekea
BEDIA
17:30ean, 12-18 urte bitartekoentzako Bardintasunaren Aldeko Zineforuma.

Zemendiak 23, astelehena
ARTEA
18:00etan, *Emakume heldu migratuak eta haien bizitza-jakinduria agerian jarriz* berbaldia La Posada de los Abrazos alkarteagaz eta jarraian, alkartearen erakusketearen inaugurazinoa egingo da (hilaren 26ra arte ikusgai).

Zemendiak 25, eguaztena
ARANTZAZU
12:00etan, udal adierazpen instituzionala. Udaletxean.
BEDIA
17:30ean, manifestuaren irakurketea eta kaleak morez apaindu; 18:00etan, Back in Konzert taldearen kontzertu musikala (opera, zarzuelak...).
IGORRE
19:30ean, Arratia mailako manifestazinoa. Lasarte plazatik hasita.
ZEBERIO
13:00etan, alkarretaratzea. Plazan.
13:00etan, Z25 antzerkia. Eskolan.
18:00etan, *Sexualidad y afectividad en la vejez* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 26, eguena
LEMOA
18:30ean, *Pa' lante es pa' lla* dokumental proiekzinoa. Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 27, barikua
AREATZA
18:00etan, *Volar* dokumentalaren proiekzinoa eta protagonistetako bategaz solasaldia. Udaletxean.
DIMA
19:00etan, *Eskailerapekoa* binakako bakarrizketa ikuskizuna Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenagaz. Abaroan.

Abenduak 5, zapatua
IGORRE
11:00etan, autodefensa tailerra. Kiñu Gaztetxean.







EKIN
eraiketak

- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK



94 631 72 57
ekin@ekinsl.eus
Igorre (Bizkaia)

EZ GINEN ATZERA EITEKO JAIO

Faxismoan aurrean, feminismoa!

HI TA NI BI Dima

ELIZATE PRESTU ETA LEIALA DIZKIO



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

Zeanuriko Udala

ZEANURI

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	**Ikastola Arratia HI** Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	**Arratia BHI** Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	**Areatzako Herri Eskola** Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	**I. Zubizarreta HLHI** Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Batxilergoak
Hezkuntza Zikloak
2 urtetik 18ra

BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.
Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpainea dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES_____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

EGUZKIBEGI
IKASTOLA KOOP S

ATE IREKIAK

AZAROAK 19
10:30etik aurrera
ikastolako ohiko jarduna ezagutzeko

AZAROAK 22
10:00etan

Zatoz gu ezagutzera!

Hitzordua eskatu!

944560264
idazkaria@eguzkibegi.net
www.eguzkibegi.eus

AZAROAK 25 . Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

EZ GINEN ATZERA EITEKO JAIO

Faxismoan aurrean, feminismoa!



ERROTA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

Ubideko Udala

ÂRRATiA
GEUREA

BEHIN-BEHINEKO ETENALDIA
Bolumen handiko hondakinak eta etxeko tresnak biltzeko zerbitzuan

Kamioiaren arazo teknikoak direla eta, jakinarazten dizuegu bolumen handiko hondakinak eta etxeko tresnak biltzeko zerbitzua **aldi baterako eten egingo dela.**



Epe honetan **ez da** mota honetako hondakinik bilduko.

Zerbitzuaren etenaldiaren bitartean, mesdez ez utzi hondakin handiak kalean eta garbigunera eraman

Zerbitzua berriz ezartzen denean abisatuko zaituztegu.

Barkatu eragozpenak, ulermena eta lankidetza eskertzen dizuegu.

Adeitasunez,
Hondakinak Biltzeko Zerbitzua
Arratiako Udalen Mankomunitatea

ÂRRATiA

BEGITU

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

649 979 115

inigoirua@begitu.eus

MENDIA

Aner Zuluaga eta Laura Varas garaile X. Lemoatx Trailen

17K lasterketa laburra Ian Olazar eta Itsasne Bengoetxeak irabazi eben.





Aner Zuluaga goian eta Itsasne Bengoetxea behean.

Asier Abrisketa

Zemendiaren 15ean jokatu zan Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail mendi jardunaldiaren hamargarren edizinoa Lemoan. Lemoatx eta Belatxikieta protagonista moduan dituan lasterketa eta martxak arrakastea izan eben, aldez aurretik saldu ziran-ta 850 dorsalak. 25 eta 17 kilometroko mendi martxak lehia bakoak izan ziran baina lasterketetan bai, egon zan lehia eta hainbat arratiarrek lortu eben lehen postuan edo podiumean egotea.

25K lasterketan berbarako, gizonen arteko garailea Aner Zuluaga igorreztarra izan zan 02:08:04ko denporeagaz. Estu-estu lortu eban lehen postua, Paul Goitisologaz (02:08:10) atzen sprintean lehiatu ostean. Alexander Ordeñana (02:09:48) izan zan hirugarrena. Andren podiuma, Laura Varas (02:48:31), Paule Portilla (02:50:21) eta Iraia Salterainek (02:56:42) osotu eben.

17K lasterketan barriz, arratiar andrak izan ziran protagonistak. Itsasne Bengoetxea zeanuriztarra izan zan lehena 01:55:53ko denporeagaz, bigarrena Eider Sobron (01:56:41) eta hirugarrena Deiene Gurtubai (02:04:04) igorreztarra. Gizonezkoen podiumean Ian Olazar (01:30:59), Egoitz Aranzeta (01:32:08) eta Gorka Sagarna (01:33:08) egon ziran.

ZIKLO-KROSA

Iparkopako liderra da Manu Quintanilla

Asier Abrisketa

Manu Quintanilla txirrindulari igorreztarra ziklo-kros denporaldian dago guztiz sartuta, astegoienero ditu-ta lasterketak. Atzen astegoien bietan Muskizen eta Zornotzan lehiatu da, hurrengoz hurrengo lehen eta bigarren postuak lortu ditualarik. Muskizeko lasterketea Iparkoparen parte zan eta oin arte egindako proba biak, Urduña eta Muskiz, irabazita lehena doa Iparkopako sailkapenean. Hilaren 21ean Elgoibarren jokatuko da Iparkopako atzen lasterketea eta Igorrekoak kopea eroateko aukera asko ditu.

Atzen astegoienean barriz, hilak 15ean, Zornotzako ziklo-kros lasterketea korridu eban Quintanillak eta bigarren egin eban. “Sentsazino gazi-gozoagaz gelditu nintzan, nik uste dot irabazi ahal nebala”, kontau dau BEGITUn. Izan be, nahiko atzean urten zan baina gitxika-gitxika postuak irabazi eta Mikel Esteibarlandarengana ailegau baina lupetzagaz bustitako espaloi zatian jausi eta aldagailua apurtu eban, bizikletaz aldatu ahal izan aurretik bira bat egin behar izan eban holan, denporea galduaz. Bizikletea aldatu eta barriro gitxitu eban tartea, Estibarlandaren aurretik ipiniaz. Baina oztopo gune baten barriro jausi eta min hartu eban Igorrekoak, atzenean bigarren geratu zalarik.



PELOTEA

Amaia Aldai lau t’erdiko laugarren txapelaren bila

Asier Abrisketa

Master Laboral Kutxa 4 ½ Txapelketea badago hasita baina Aldai dimoztarrak, atzen edizinoko finalera ailegau zala-ta, final-laurdenetan hasiko dau bere ibilbidea. Hain zuzen be, zemendiaren 22an jokatuko dau Arrate Bergararen kontrako partidua, Zamudion 18:00etan. Dimakoa atzen urte bietako arantzea kentzean saiatuko da, final biak jokatu ebazan arren ez eban-ta txapelik janztea lortu.

Aurretik barriz, bata bestearen atzetik, lau t’erdiko hiru txapel irabazi ebazan Aldaik. 2021, 2022 eta 2023ko edizinoetan izan zan garaile. Atzen hileetan baina, Aldai indartsu ibili da eta izango dau barriro be lau t’erdiko buru izateko aukerea. Abuztuan, Miriam Arrillagagaz batera, Plazandreak Txapelketea irabazi eban eta ointsu, urri lehenengoan, Udako Torneoko txapela be jantzi dau Itsaso Erasunegaz.



TRONTZEA

Ruth Linaza, Euskadiko trontza txapeldunorde

Erredakzinoa

Ruth Linaza lemoaztarrak eta Garbiñe López de Uraldek bigarren egin eben Euskadiko Andrazkoen Trontza Txapelketan, zemendiaren 13an, Donezteben.

Bikoteak 8 minutu eta 29 segundotan egin eban lana, txapeldunek baino 25 segundo gehiago.

Doneztebeko udagoieneko feriaren barruan jokatu zan txapelketea, Ezkurra frontoian. Bost bikote lehiatu ziran, eta bakotxak 15 ebaketa egin behar izan ebazan etzanda ipinitako 45 ontzako pago enborrean.

Uxue Ansorregi mendaroarrak eta Aurkene Aroka berriozartarrak jantzi eben txapela, 8 minutu eta 4 segundoko denporeagaz. Sara Jiménez de Aberasturik eta Maite de Felipe Susok osotu eben podiuma.

BEGITU Linazagaz egon zan eta hau adierazo eban: “Etxean egindako beharra ez genduan egin, baina behintzat bigarren postua erdietsi eta pozik. Besteak gehiago izan ziran. Kontziliazinoa ez da beti erraza izaten, baina datorren urtean txapelaren bila joango gara. Ziurbakotasuna daukagu halanda be, ze federazinoak urte amaierara arte ez dauz txapelketak ipini, eta horrek prestakuntza aldetik desorganizazino handia ekarten dau. Urte hasikeran jakinda, beste era batera prestetako aukerea emoten dau”.



PELOTEA

Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta, azpitxapeldun Belgikan

Banaka finalurrekoetan galdu eben eta binakako txapelketan lortu dabe zidarra: “Gero eta gusturago gagoz bikote moduan”.



Mikel Beldarrain eta Lur Ziarrusta.

Asier Abrisketa

New Yorken jokatu zan onewalleko mundialetik bueltau eta hilebetera Mikel Beldarrain arteaztarra eta Lur Ziarrusta dimoztarra Belgium Openean izan dira. Denporaldiko Europako zirkituko lehen txapelketea izan da eta Ziarrustak BEGITUn onartu dau, ia entrenau barik joan zirala: “Mundialaren ostean hilebeteko geldialdia egin dogu eta ez gara asko prestatu; urte hasikerako helburuak beteteko beste martxa bat behar gendualako”. Halanda be, ez dabe bape emaitza txarrik atera. Binaka zidarra eta banaka biak finalaurrekoetan kanporatuta.

Urri bigarrenaren 31n, zapatua, jokatu zan banakako txapelketea. Beldarrain zein Ziarrustak ligaxkak gainditu eta final-laurdenak irabazi ebezan. Finalaurrekoetan barriz, Ziarrustak Löic Clement izan eban aurkari eta bakotxak set bat irabazita, bardinketea haustekoa Clement-en eskuetan jausi zan. Beldarrainek Luke Thompson izan eban aurrez aurre eta set biak galdu ebazan. “Arpegia emon genduan eta galtzeako moduko partiduak ziran; gure onenean be askotan galdu dogu honeen kontra”, inoan Ziarrustak.

Binakakoa zemendiaren 1ean jokatu zan eta arratiarrak “esperantza gehiagogaz” aurkeztu ziran: “Gero eta gusturago gagoz bikote moduan”. Ligaxkea gainditua finalaurrekoan “bikote oso fuertea” izan eben aurrez aurre. Luke Thompson eta Sacha Kruithof-en kontra galtzean hasi ziran gureak baina bigarren seta irabaztea lortu eta hirugarrena jokatuteko aukerea izan eben. Estu-estu, 11-9, baina eurentzako izan zan partidua. Finalean Löic Clement eta Noah Daubechies belgikarren kontra ikusi ziran. Lehenengo seta puntu bakarragaitik galdu eben eta bigarrena irabazi; ha-ta guzti be, hirugarrena belgikarren alde jausi zan eta arratiarrak, zidarragaz konformau ziran.

PELOTEA

Finalerako txartel barik geratu da Rekalde

Unai Amianoren kontrako finalaurrekoa 22-17 galdu eban Idiazabalen.

Asier Abrisketa

Xabi Rekalde dimoztarra 4 ½ Eusko Label Txapelketea jokatuten ibili da eta beste behin, pasau dan urteko lau t’erdikoan zein aurtengo buruz burukoan pasau modura, finalaurrekoan ezin izan dau Unai Amiano gainditu. Idiazabalgo Igarondo pelotalekuan jokatu zan finalaurrekoa hilaren 6an eta 22-17 galduta, finalera ailegetako txartel barik geratu da Dimakoa. Halanda be, eta profesional moduan urte bakarra daroala kontuan hartuta, Rekalde gogotsu dago hurrengo aukeretarako: “Alde positibotik ikusi behar da; oso hurbil egon naz eta kapazidadea badaukat, lanean jarraitu eta helduko dira emaitzak”.

Rekaldek kalidadezko pelotakadak egin ebazan arren, partiduaren lehen zatian huts asko egin ebazan eta atzenean, Amianoren erregulartasuna izan zan erabakigarria. Izan be, Amianok hamaika tantu eukazanean, horreetako zortzi Rekalderen hutsetatik etorzan. Hurbil mantenidutea lortu eban arren, lehen atsedenaldiaren ostean Amiano hasi zan pelotea mobiduten eta 18-10 ipini zan. Bigarren atsedenaldiaren ostean Rekalde barriro hasi zan bere jokoa egiten eta tantuz tantu dinamika hori mantenidu-ten. Baina daborduko, oso gatx eukan Amiano harrapetea eta atzenean 22-17 amaitu zan norgehiagokea.



FUTBOLA

Andrazkoen Arratia Ak eta Bk irabazi

Gizonezkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik bardindu egin ebezan euren partiduak etxean eta gizonezkoen Arratia Bk galdu egin eban etxetik kanpo.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak domeka eguerdian jokatu eban etxetik kanpo Osasuna B taldearen kontra eta 1-2 irabazi eban. Partidua ordu erdi beranduago hasi zan linier bat falta zalako. Arratiarrak aurreratu ziran Iradi Elorriaga erdi ubideztarrak 40. minutuan areaz kanpotik sartutako golari esker. Bigarren zatia hasi eta bost minutura bardindu eban Osasunak, baina partiduko 75. minutuan Maialen Cocoren jaurtiketeak langan jo eban eta Amaia Altzaga aurrelariak aldaratzea aprobetxau eban bigarren gola sartzeako. Bederatzi jardunaldiren ostean, 12 puntu ditu Arratiak eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua be etxetik kanpo jokatuko dau Sporting de Gijon taldearen kontra hilaren 21ean, 16:00etan.

Andrazkoen Arratia B taldeak zemendiaren 14ko arrastian jokatu eban Zumaiako taldearen kontra etxetik kanpo eta 1-2 irabazi eban. Atsedenaldira 1-0 heldu baziran be, 51. minutuan Miren Gordok bardinketearen gola sartu eban eta Alaitz Zelestino dimoztarrak 1-2koa 94. minutuan. Bederatzi jardunaldiren ostean, 12 puntu ditu Arratia Bk eta hamargarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Antiguoko taldearen kontra hilaren 22an, 12:30ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak zemendiaren 14ko arrastian jokatu eban Urbietan lidertzan dagoan Begoña taldearen kontra eta husna bardindu eben. Arratiak jokalari bat gitxiagogaz jokatu eban 58. minututik. Bederatzi jardunaldiren ostean, 8 puntu ditu Arratiak eta hamalaugarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Usansolon Umore Ona taldearen kontra hilaren 21ean, 18:15ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak zemendiaren 14ko arrastian jokatu eban etxetik kanpo Elorrio taldearen kontra eta 4-0 galdu eban. Arratiarrek atzen 3 partiduak galdu dabez segiduan. Bederatzi jardunaldiren ostean, 5 puntu ditu Arratia Bk eta hamazazpigarren postuan dago, jatsiera postuetan. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau San Ignacio taldearen kontra hilaren 21ean, 18:15ean.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik zemendiaren 14ko arrastian jokatu eban Umore Ona taldearen kontra eta bina bardindu eban. Mikel Aurrekoetxea lemoaztarrak ohorezko sakea egin eban, Munduko Pilota Txapelketan lortutako zidarrezko dominagaitik. Atsedenaldira 1-0 heldu ziran 38. minutuan Unai Zuluetak sartutako golari esker. Bigarren zatian 48. eta 51. minutuetan bueltea emon eutsien markagailuari Usansolokoek, baina 79. minutuan Jon Casillasek sartutako penalti bateri esker lemoaztarrek bardinketea lortu eben. Bederatzi jardunaldiren ostean, 12 puntu ditu Harrobik eta zortzigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Gatika taldearen kontra hilaren 21ean, 15:30ean.



● TXOTXONGILOAK

Erresinolaren kantua txotxongilo ikuskizuna dakar Kotxepinek

Zemendiaren 21ean, 18:30ean taularatuko da txotxongiloak, itzalak eta zuzeneko musikea buztartuten dituan umeentzako ikuskizuna.

Asier Abrisketa

Teatro Gorakadak eta Naita Produkzioak konpainiek Hans Christian Andersen-en 1843ko *Urretxindorra* umeentzako ipuin klasikoa berrasmatu eta oholtzara egokitu dabe; txotxongilo, itzalak eta zuzeneko musikea buztartuaz. Hilaren 21ean, zapatua, ikusi ahal izango dabe ume eta familiek *Erresinolaren kantua* Kotxepinen, 18:30ean. Obrea, "naturako gauzarik xumeenetan topau daitekean edertasunaz mintzo da", dinoe egileek.

Erresinola bape erakargarria ez dan baina ahots ederreko txoritxoa da, Txinako enperadorea bera eta korte osoaren bihotzak beteteko gai dana. Enperadoreak, gauzarik preziatuena eukiteko dauan grina zentzubakoan, txoritxoa bere ondoan biziarazoten dau. Baina edertasun eta umorez betetako istorioaren bira baten, enpreadore ahaltsua konturatuko da dana ezin dala jaubetzan hartu. Holan, errespetuari eta askatasunari egindako kantua izango da urretxindorrarena.



● LIBURUA ETA KONTZERTUA

Kontzertu akustikoa eta liburu aurkezpena Axularren

Berri Txarrak-en bersino akustikoak eta *Titikornio* liburuaren aurkezpena egongo dira datozan asteetan.

Asier Abrisketa

Igorreko Axular Herriko Tabernak plan bikotxa dakar datozan asteetarako. Hileko atzen zapatuan, zemendiak 28, abesti sano ezagunak entzungo dira herrikoan. Izan be, Beude bikote akustikoak kontzertua eskainiko dau 20:00etatik aurrera. Beude taldea Berri Txarrak taldearen bersino akustikoak joten dabil pasau dan urrietatik. Ziur abesti ezagunakaz herriko osoa kantetan ipiniko dauala.

Abenduaren 2an barriz, eguaztena, Irati Garmendia irakasle ordiziarra egongo da herrikoan 18:30etik aurrera bere lehen eleberria aurkeztuten. *Titikornio* (Erein, 2026) da nobelea eta bere ama eta amamagaz izandako esperientziatik abiatuta, bularreko minbiziak familia bat zelan aldatuten dauan kontetan dau. Beren beregi, nerabeentzako dago idatzita nobelea.

● KONTZERTUA

Esanezin taldeak kontzertua eskainiko dau Lemoako Kotxepinen

Hilaren 27an izango da Ianire Aranzaberen taldearen zuzeneko emonaldia Kotxepinen, 20:00etan.

Asier Abrisketa

Ianire Aranzabek (Altzagarate, 1999) 2021ean abiatu eban Esanezin proiektua bakarlari modura. *Aireratzen* EPa kaleratu eta lehenengo kontzertuak emon ebazan, pop doinuak landuaz baina musika-erreferentzia barriei ateak zarratu barik. Bertatik abiatuta, aurrerapausua emon eta bera abeslari eta gitarra-jole izanda, laukotea osotu dau Arri Iraeta (bateria), Iñigo Asensio (tekladua) eta Imanol Rubiogaz (gitarra elektrikoa).

2023 aldean, eszenatokietatik apur bat urrundu eta lehen lan luzea kaleratu eben *Erretratu bat* izenpean. Egunerokotasunari, pribilegioei, hautuei, bildurrei eta zauriei kantau eutsan orduan Aranzabek. Pasau dan urtean barriz, taldearen bigarren lan luzea argitaratu zan: *Hormetan idazten*. "Zirrara tristea Altzagaratetik", dinoe taldearen profilek Bandcamp eta Spotify moduko plataformetan eta hain zuzen be, hauskortasun eta malenkonia puntu hori dakarre atzen diskoko bederatzi kantek, Sara Zozaya eta Idoia Asurmendiren laguntzeagaz.



● ZEZILI DEUNA

Eskualdeko musikariek Zezili Deuna ospatuko dabe

Arratiako Musika Eskolearen, Luis Iruarrizaga Abesbatzaren, Areatzako Bandearen eta Zeanuriko Abesbatzaren ospakizunak hilaren 19, 20 eta 21ean egingo dira.

Asier Abrisketa

Zemendiak 22a da, aurten domekea, kristautasunak musikearen jagole eta patroitzat daukan Zezili Deunaren eguna eta honen bueltan, Arratiako musika erakundeek hainbat jarduera antolatuten ditue urtero-urtero. Aurten be, Arratiako Musika Eskoleak, Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzak, Areatzako Bandak eta Zeanuriko Abesbatzak antolatu ditue kontzertu eta kantaldiak.

Zezili Deuna ospatuten lehenak Arratiako Musika Eskolako ikasleak izango dira. Hilaren 19an, eguena, egingo da Areatza, Artea, Dima, Igorre, Lemoa, Otxandio, Zeanuri eta Zeberioko 8 eta 23 urte bitarteko ia 120 ikasleen kontzertua, irakasleez lagunduta, 18:30ean Arteako frontoian. Aurretik, eguraldiak lagunduten badau kalejirea egingo da, 18:10ean, Kultur Etxetik frontoira. Gero, txokolatea be zerbitzauko da frontoian.

Hilaren 20an barriz, barikua, Areatza zein Igorreko eleizetan egingo dira kontzertuak. Areatzan 20:00etan hasiko da Areatzako Banda, Zornotzako Banda eta Galiziako Odaiko perkusino taldearen *Itsasoaren taupada* kontzertua. Aritz Labrador Areatzako Bandako zuzendariak zuzenduko dau kontzertua eta BEGITUN kontau dauanez, entzuleak parte-hartzaile bihurtutera dator Odaiko. Kontzertu bera, hurrengo egunean egingo da Zornotzan. Egun berean, Igorreko eleizan 19:30ean, Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatza eta Getxoko Zozoak Abesbatza egongo dira, Gorka Beriainen zuzendaritzapean kantetan.



Zeanurin barriz, Zeanuriko Abesbatza tabernaz taberna ibiliko da zapatuan, hilak 21, 12:30etik aurrera poteoa girotuten. Poteoa amaituta, koruko kideek bazkaria be egingo dabe Zezili Deunaren omenez.

● IKUSKIZUNA

Jantzak, antzerkia eta animaliak Lasarte Aretoan

Asier Abrisketa

Judith Argomanizek zuzenduta, Garazi Etxaburu, Miren Lizeaga eta Leire Otamendi jantzari eta antzezleek *Alai familian* ume eta familientzako ikuskizuna taularatuko dabe zemendiaren 27an, barikua, Igorreko Lasarte Aretoan. Familia eredu desbardinen inguruan hausnartuteko antzerki jantzatua 18:00etan hasiko da.

"Alaik sei urte daukaz eta bere amama eta txakurragaz bizi da. Alairen familia ez da bere lagunena modukoa eta horrek desbardin setidurazoten dau Alai. Baina gau baten ametsen munduan murgildu eta animalia mordo bat ikusi eta honeen familia mota desbardinak ezetuko ditu. Zelangoa da ba, familia normal bat?", dino sinopsiak.



● POESIA

Federico Garcia Lorca omenduko dau Poesia Hegalaria taldeak

Fusilau ebenetik 90 urte pasau ostean, *Romancero gitano* errezitaldia musika eta jantzakaz buztartuko dabe hilaren 20an, Igorreko Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Erroak Igorren dituan Poesia Hegalaria taldeak errezitaldi barri bat dakar Lasarte Aretora hilaren 20rako, barikua, 19:30etik aurrera. Irune Elexpe, Raquel Bartolome, Javier Arnaiz, Ana Juez, Andrea Uña eta Pablo Cabañas rapsodek egingo dabe Federico Garcia Lorcaren 1928ko *Romancero gitano* poema liburuaren errezitaldia; Alberto Eguia eta Jorge Truebaren musika eta Lorena Salcedoren jantza artean.

Garcia Lorca 1936ko abuztuaren 18an fusilau eben estadukolpea emon eta gerrea abiarazo barri eben faxistek. Andaluziar unibersalena homosexual eta gorri izateagaitik erail eben faxistek eta Poesia Hegalaria taldetik, poetea eta haren obrea omendu gura ditue: "Gaur egun obra hau aurkezteak behartzen gaitu gogoratzera diktadurak ahanzturea ereiten saiatu arren, benetako bertsoak beti bueltetan dirala etorkizunean biziteko eta askatasuna eskatzeko".



● ZINEKLUBA

Saudi Arabiako lehen andra zinegilearen lana Igorreko Zineklubean

Zemendiaren 18an, 20:00etan, *La bicicleta verde* pelikulea proiektauko da Lasarte Aretoan.



Asier Abrisketa

Zemendiko Igorreko Zineklub saioan, kursoko bigarrena, Haifaa Al-Mansour zuzendari saudi arabiarraren 2012ko *La bicicleta verde* filmaren gaineko solasalditxoa eta proiekzinoa egingo da. Al-Mansour erresuma arabiarreko lehen andra zinegilea da, eta herrialdeko eszena zinematografikoko persona garrantzitsuenetakotzat joten da. Holan, herrialde tradizional eta errepresibo haretako neskato baten istorioa dakar pantaila handira film honetan.

"Wadjdak hamar urte ditu eta gizarte oso tradizional baten bizi da, non bizikletan ibiltea moduko gauzak guztiz debekatuta daukazan. Ha-ta guzti be, neskato dibertigarri eta ekintzailea da, eta beti dabil baimendutakoaren eta galazotakoaren arteko mugan. Wadjdak bizikleta bat gura dau, bere lagun dan Abdullah mutikoagaz lasterketak egiteko, baina amak ez deutso ixten, bizikletak neskatoen duintasunerako arriskutsuak diralakoan", dino sinopsiak.

DUNBA

Gaztaina Eguna: urteroko ohiturea, guretzako atzena

Dimako eskolako 6. mailako ikasleak

Aurtengo urri bigarrenaren 23an, Dimako eskolakook Gaztaina Eguna ospatu genduan urtero moduan. Goizean goiz, motxilea lepoan hartu eta eskolatik urten ginan egun parebako bat pasetako asmoagaz. Aldapan gora tipi-tapa igoten hasi ginan Bargondia auzora heldu arte, ondoren, San Lorentzon hamaiketakoa jan genduan ermita inguruan eta pausu arinean Indusira bajatu ginan Baltzolako paraje ederrak zeharkatu eta gero. Ibilbidean zehar Zeferen istorioak entzun eta inguruko tontorrak be ikasi genduzan: Larraungan, Keixa, Kobazo, Bargondiko Atxa...

Ikasturte honetan, Igor Menikagaz bertsolaritza saioa daukagunez, bertso sorta eder hau prestatu genduan Indusin bertan eskolako kideei, Edurneri eta eskalatzaileei kantetako:

Gaur ospatuko dugu
gaztaina eguna
a ze ibilbidea
tokatu zaiguna
eskolan hasi eta
aldatsa astuna
Indusira heltzeko
da bide ezaguna.

San Lorentzora helduta
hamaiketakoa
guk indarrak hartzeko
izan da nahikoa
aldatz beheran gorputza
askoz hobe doa
hau da kobazulora
sartzeko gogoa.

Jentilzubi pasatu
ta halako baten
Edurne eta besteak
dekoguz etxoten.
Hasi gara jantzan ta
musikea joten
erromeri ederra
sortu dugu hemen.

Gero toketan jaku
horman eskalada
ta bazkari gozoa
zelango pasada!
Gaztainak jan da gero
kriston betekada
betiko lez ederto
ibiliko gara!

Eta benetan ederto ibili ginala! 6. mailakoentzako atzen urtea izan zanez, oso berezia izan zan egun honeek izaten diralako hemendik urte askotara gogoratuten doguzanak. Eskertu gurako geunkez egun hori horren polita izateko parte hartu eben persona guztiak. Gora Gaztaina Eguna eta gora Dimako eskolea!







AGENDEA

Zemendiak 17

ARANTZAZU
17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA
08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Hilaren 21 eta 22an egingo dan *Arratiako jazza, foxetik swingera* ikastarorako izen-emotea, *aiko.eus* webugnean.

Aurretiazko Borondateen Dokumentua. 18:00etan, dokumentua zelan gauzatu ezetuteko saioa. Udaletxeko Areto Nagusian. Parte hartzeako, emon izena udaletxean edo Igorreko Osasun Zentroan.

19:00etatik 21:00etara, *Eta elkar ulertzen ikasiko bagenu? Egunerokorako tresna praktikoak bizkidetzea hobetuteko* bigarren saioa. Izen-emotea udal bulegoetan edo 94 673 90 10 telefonoan.

ARRATIA
Abenduaren 31ra arte, AEK-ko Berbalagunek antolatutako V. Mikroipuin Txapelketarako ipuinak (50-100 berba) bidaltzeko aukerea *arratia_berbalagun@aek.eus* helbidera.

BEDIA
16:30etik 19:30era, informazino gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik.

Hilaren 20ra arte, Birziklatutako Materialakaz Egindako Gabonetako Zugatzen Lehiaketea.

DIMA
09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era, Arratia Garbia kanpainearen bulego finkoa. Abaroan.

IGORRE
08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

16:30ean, familientzat berbaldia eskolan, *¿Como puedo ayudar a mis hijas/os sin saber euskera?* Antolatzaileak: UEMA, Tranbia Txiki, Inazio Zubizarreta Guraso Elkartea, Udala eta BFA. Zaintza zerbitzua egongo da.

Hilaren 26ra arte, *Mundu-ikuskerak margolanetan* arte erakusketa kolektiboa. Kultur Etxean.

Abenduaren 11ra arte, Kultur Etxeko bazkide txartela 5 euro merkeago egiteko epea zabalik. Lagun txartelaren urteko banakako kuotea 30 eurokoa da. Familiakoa 25 euro kide bakotxa eta 20 eurokoa 14 urtetik beherakoentzat.

LEMOA
08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

10:00etatik 11:30era, Arratiako Enpresa Mahaia. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI
Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO
17:00etatik 19:00etara, astelehen, martitzen eta eguenetan liburutegia zabalik.

Zemendiak 18

IGORRE
10:00etatik 11:30era, Arratiako Enpresa Mahaia. Lasarte Aretoan.

Zinekluba. 20:00etan, *La bicicleta verde* pelikulearen proiekzinoa eta solasaldia. Lasarte Aretoan.

LEMOA
19:00etan, Hauteskunde Orokorretako EAJ-PNVren kanpainako mitina Maria Dolores Etxano, Idoia Sagastizabal eta Aritz Abaroagaz. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, *Menopausia ongizatez eta osasunez bizi* tailerra Joane Jimbert emaginagaz (izen-emotea *mazalaandrataldea@gmail.com*). Kultur Etxean. Mazalak antolatuta.

ZEBERIO
Udazken Kulturala. 18:00etan, *Los derechos de las personas mayores* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 19

ARTEA
Zezili Deuna. 18:10ean, kalejirea; 18:30ean, Arratiako Musika Eskolakoen kontzertua. Frontoian.

10:00etatik 11:30era, Arratiako Enpresa Mahaia. Bildosolako Industrialdean.

DIMA
19:30ean, *REBELDE: Josu Urrutikoetxea* dokumentalaren proiekzinoa. Eskolako kamaran.

IGORRE
18:30ean, Igitiek antolatutako *Zelan landu sukaldaritza eredu burujabe, osasuntsu eta jasangarria gure eskoletan* berbaldia (zaintza zerbitzua egongo da). Kultur Etxean.

18:30ean, argizarizko kandelak egiteko tailerra (izen-emotea *arratia_berbalagun@aek.eus*). Kubulu euskaltegian.

19:00etan, Hauteskunde Orokorretako EH Bilduren kanpainako ekitaldia Iker Casanovagaz. Kultur Etxean.

Zemendiak 20

AREATZA
Zezili Deuna. 20:00etan, Areatzako Banda, Zornotzako Banda eta Galiziako Odaiko perkusino taldearen *Itsasoaren taupada* kontzertua. Eleizan.

ARTEA
20:00etan, Four Friends taldearen kontzertua. Ailarak-Musiktopan.

DIMA
Bariku txiki. 18:00etan, umeentzako ipuin tailerra (ilustrazinoa eta irakurketea). Abaroan.

IGORRE
19:30ean, Poesia Hegalaria taldearen *Romancero gitano* errezitaldia. Lasarte Aretoan.

Zezili Deuna. 19:30ean, Igorreko Luis Iruarrizaga eta Getxoko Zozoak Abesbatzaren kontzertua. Eleizan.

ZEANURI
19:00etan, *Musikaz blai!* binilo-pintxadea (ekarri zure biniloak) eta Izenbakoak eta Kotxino Martes taldeen kontzertuak. Eguzkiolan.

ZEBERIO
Udazken Kulturala. 19:00etan, bertso-poteoa. Plazan.

Zemendiak 21

AREATZA
Arratiako jazza, foxetik swingera, swing jantzan hasteko ikastaroa Alex eta Naiaragaz eskoletan. 17:00etatik 20:00etara, jantza ikastaroa; 22:30ean, afalondoko jantzaldia.

BEDIA
Jubiladuen bazkaria. 13:00etan, hildakoen aldeko mezea; 14:30ean, bazkaria El Lemones jatetxean. Izena emon behar izan da.

IGORRE
Kiñu Gaztetxeak antolatutako XIII. Rokupa. 12:00etan, txalaparta tailerra eta txalaparta taldearen aurkezpena; 15:00etan, bazkaria (txartelak Axular eta Kukuman hilaren 19ra arte); 19:00etan, Tatiren kontzertua Haizean; On taldearen kontzertua Kukuman; 22:00etan, Grapa taldearen kontzertua eta DJ Radiopatio Axular Herriko Tabernan.

LEMOA
18:30ean, *Erresinolaren kantua* umeentzako txotxongilo ikuskizuna. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI
Zezili Deuna. 12:30ean, Zeanuriko Abesbatza tabernaz taberna.

Eskolaumeentzako ipuin kontaketea, bertso eta musikeagaz Lemoan



Lemoako eskolaume txikerrenek urtekera berezia egingo dabe hilaren 20an, barikua. Goizean eskolatik urten eta Kotxepin Kultur Etxera mobiduko dira, bertso eta musikeagaz buztartutako *Otsoko eta Xixili* ipuin kontaketeagaz gozatutera. Maren Basterretxeak Xixili neskato animaliazale eta abenturazalearen eta Otsoko, otsokume bildurtiak topa egiten dabeneko istorioa kontauko dau. Bertsoak Oihana Iguaran, Amets Arzallus, Alaia Martin eta Iker Zubeldiarenak dira eta musikea, Oskar Estangak egindakoa da.

Zemendiak 22

AREATZA
Arratiako jazza, foxetik swingera, swing jantzan hasteko ikastaroa Alex eta Naiaragaz eskoletan. 10:00etatik 13:00etara, jantza ikastaroa.

ARTEA
19:00etan, Jai Batzordearen batzarra. Kultur Etxean.

BEDIA
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 17:30ean, 12-18 urte bitartekoentzako Bardintasunaren Aldeko Zineforuma.

IGORRE
Zinea. 17:00etan, *Jumbo*; 19:30ean, *Verity, la sombra de un engaño*.

Zemendiak 23

AREATZA
Urtailaren 9ra arte, Bonodenda kanpainea martxan. Bonuak 20 eurotan erosi daitekez Gauzak dendan.

ARTEA
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, *Emakume heldu migratuak eta haien bizitza-jakinduria agerian jarriz* berbaldia La Posada de los Abrazos alkarteagaz eta erakusketearen inaugurazinoa (hilaren 26ra arte ikusgai). Kultur Etxean.

Zemendiak 25

ARANTZAZU
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 12:00etan, udal adierazpen ekitaldia. Udaletxean.

BEDIA
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 17:30ean, manifestuaren irakurketea eta kaleak morez apaindu; 18:00etan, Back in Konzert taldearen kontzertu musikala (opera, zarzuelak...).

IGORRE
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 19:30ean, Arratia mailako manifestazinoa. Lasarte plazan.

ZEBERIO
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 13:00etan, Z25 alkarretaratzea plazan; 13:00etan, Z25 antzerkia eskolan; 18:00etan, *Sexualidad y afectividad en la vejez* berbaldia Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 26

ARTEA
18:00etan, *Osteoporosiaren aurka: kirola, baratza eta elikadura* berbaldia. Kultur Etxean.

IGORRE
VII. Azoka Solidarioa. Arrastian zehar, jostailuak, liburuak, motxilak, mozorroak eta bestelakoen bilketea. Lehendakari Agirre kalean.

LEMOA
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 18:30ean, *Pa' lante es pa' lla* dokumental proiekzinoa. Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 27

AREATZA
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 18:00etan, *Volar* dokumentalaren proiekzinoa eta protagonistetako bategaz solasaldia. Udaletxean.

DIMA
Andranganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna. 19:00etan, *Eskailerapekoa* binakako bakarrizketa ikuskizuna Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenagaz. Abaroan.

IGORRE
18:00etan, *Alai familian* umeentzako jantza antzezlana. Lasarte Aretoan.

LEMOA
20:00etan, Esanezin taldearen kontzertua. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI
Asterriako San Andres jaiak. 19:00etan, txupinazoa eta herriko txistulariak; 19:30ean, Igel Txapelketea; 21:00etan, bertso-afaria Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldiagaz (izen-emotea 636 378 870 telefonoan).

ZEBERIO
Udazken Kulturala. 17:00etan, *Frida* antzezlana; 19:00etan, *Paredes que inspiran* berbaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Zemendiak 28

AREATZA
17:00etan, Korapilotuten Kanpolartegaz. Laminetxe Gaztetxeko V. urteurrenerantza.

DIMA
20:00etan, Suger taldearen *Anots* diskoaren aurkezpena Staff eta Garraio taldeak lagun. Abaroa aretoan.

IGORRE
20:00etan, Beude bikote akustikoaren kontzertua. Axular Herriko Tabernan.

ZEANURI
Asterriako San Andres jaiak. 18:00etan, ardi-mozte, trontza eta harri-tira desafioak; 20:30ean, odoloste-jana; 21:00etan, jantzaldia Jainaga eta Narbaizagaz; gero, DJ Rednal.

ZEBERIO
Udazken Kulturala. 18:00etan, Vulcanizadas taldearen kontzertua. Ermitabarrin.

Zemendiak 29

IGORRE
Zinea. 17:00etan, *Dinoren familia*; 19:30ean, *Leones en invierno*.

ZEANURI
Asterriako San Andres jaiak. 19:00etan, mezea; gero, txokolatea, errifen zozketea eta herriko txistulariak.

ZEBERIO
Udazken Kulturala. 10:00etan, Udazkeneko Azokea. Plazan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

Danerik

ALOKATZEKO ETXE BILA
Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

ERIZAINAK ETA GEROKULTOREAK BEHAR DIRA
Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN
Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI
Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI
Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

ETXEKO GARBIKETAN LAGUNTZEKO LAN ESKAINTZEA
Etxeko garbiketan laguntzeko lana eskaintzen dogu Dimako pisu txiki baten. Interesa badaukazu, deitu hurrengo zenbakira: 685 766 578.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz (Alex Harillo, Eskean Kristö) adin guztietarako. Diman. Idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera edo deitu 664 303 528 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat *begitu@begitu.eus* helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Esanezin taldearen kontzerturako.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Alai familian* ikuskizunerako.

Iosu Murgia (Artea)
Peio Barrenetxea (Igorre)



Argi Etxezarraga (Areatza)
Eñaut Intxaurraga (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUk 24 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | *www.begitu.eus* | *begitu@begitu.eus*

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
☎: 94-673-70-87
☎: 609-79-40-54

NAIARA Hortz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

INMOBILIARIA Larrea
Promozioak, pisuak, etxeak, baserriak, lurrak, txaletak...
ARRATIAKO BAZTERRAK ZEIN POLITAK DIREN!
Lehendakari Agirre, 8 behea · 94 631 80 04 · IGORRE
igorre@inmolarrea.com
www.inmobiliarialarrea.com
WhatsApp 660 452 420

BEGITU

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN NAZIOARTEKO EGUNA

AZAROAK 18 ZEANURI

MENOPAUSIA ONGIZATEZ ETA OSASUNEZ BIZI *Euskaraz*

Joane Jimbert emaginaren eskutik

18:00- 20:00 KULTUR ETXEAN

AZAROAK 25 BEDIA

BACK IN KONTZERT

KONTZERTU ANTZEZTUA

17:30: HERRI APAINKETA MOREZ

18:00 Eleizan

AZAROAK 26 LEMOA

PA' LANTE ES PA' ALLA

Dokumentala 54' *Gazteleraz*

Migradas sin fronteras elkartearen ekoizpena

18:30 Kotxepin Kultur Etxean

AZAROAK 27 DIMA

ESKAILERAPEKOA

Binakako bakarrizketa-ikuskizuna

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena

19:00 ABAROAN

AZAROAK 23-26 ARTEA

ERAKUSKETA

Emakume heldu migratuak eta haien bizitza-jakinduriak agerian jarriz

LA POSADA DE LOS ABRAZOS

Aurkezpena: AZAROAK 23, 18:00

16:00-19:00 KULTUR ETXEAN

AZAROAK 25 ARANTZAZU

UDAL ADIERAZPEN EKITALDIA

12:00 UDALETXEAN

Arratsaldeko ekitaldietara parte hartze deialdia

AZAROAK 27 AREATZA

VOLAR ZINEFORUM *Gazteleraz*

18:00 ARETO NAGUSIAN

ABENDUAK 5 IGORRE

AUTODEFENTSA TAILERRA

ILGORAN ARRATIAKO GAZTE FEMINISTAK

JABEKUNTZA ESKOLA *EUSKARAZ*

11:00 KIÑU Gaztetxean

EZ GINEN ATZERA EGITEKO JAIO

Faxismoaren aurrean, Feminismoa!

MANIFESTAZIOA IGORREN

AZAROAK 25, 19:30ean, LASARTE PLAZAN

Artea Bedia Dima Igorre Lemoa Zeanuri Arantzazu Areatza

ARRATIA ARRATIAKO MUGIMENDU FEMINISTA KAFRANGAK Mazala Zeaniko emakume taldea